



Berri Txarrak taldeak Durangaldeari agur esango dio asteburuan, Plateruenean 16. orrialdea

2019ko matxoaren 9a | 17. urtea | 754. alea  
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

 **anboto**

TOKIKOM



*Olatu morea*

*Durangaldean*

Atzo milaka emakume irten ziren kalera martxoaren 8ko mobilizazioei erantzunez. Durangaldeko herri askotan ekitaldi jendetsuak egin zituzten berdintasuna aldarrikatzeko. •2-5

LEIHOI EORRIAGA

**14**  
**AUKERA AZOKA**

BEHERAPENAK  
DE COMPASÍ  
DURANGO  
%  
SHOPPING!

**MARTXOAK 8, 9, 10**  
**DURANGO 2019 Landako Gunea**

**Ostirala & Larunbata**  
10:00-14:00 & 17:00-21:00

**Igandea**  
11:00-14:00 & 17:00-19:00

 @Dendak Bai Merkatari Elkartea  688 738 102  www.dendakbai.eus



Jone  
Guenetxea  
Arrinda  
ANBOTOk  
zuzendaria



## M8, aurrera

Joan zen astean ANBOTOn egindako elkarrizketan, egoitza bateko Pilar Mazaga zaintzaileak zioen patronaleko kide batek hauxe esan ziola lan baldintzak duintzeko mahaian: "Zergatik kexatzen zarete egiten duzuen bakarra ipurdiak garbitzea bada!". Hara hor, patriarkatuaren erraietatik irtendako mezu zuzena. Gehienak emakumeak diren sektorean lana gutxieztea eguneroko ogia da. Momentu horretan kontraturatu ziren egoitzetako zaintzaileen borroka eta borroka feminista bat zirela. Lan baldintzez harago, euren lanaren errekonozimendu falta dago arazoaren muinean, hau da, patriarkatua eta matxismoa. Ahalduntzeak ekarri die garaipena. Bejondeizuela!

Ahalduntze hori beste gizarte mugimendu batzuetan ere sumatzen da: pentsiodunen aldarrikapenetan, esate baterako. Testuinguru honetan dator hainbategi laugarren olatu feminista deitu dioten hori. Feminismoaren susperraldia, alegia. Beste gizarte mugimendu batzuek ez bezala, feminismoaren loraldiak esparru anitzetako pertsonak ilusionatzea eta aktibatzea lortu du helburu komun bat lortzeko: berdintasuna. Iazko lanuztea eta aurtengo greba feminismoagaz izan duten lehenengo kontaktua izan da gazte askorentzat. Durangaldean bertan, mobilizazioak masiboak izan dira hainbat herritan.

ANBOTOk emakumeok ere grebagaz bat egin dugu, eta, horregatik, zapatuan kaleratu dugu alea, lehenengoz gure historian. Feminismoan oinarritutako lanean jarraituko dugu, betaurreko moreak jantzita. Bakoitzak bere esparruan pausoak emanez, olatua tsunami bihurtu dezagun, ipurdiak garbitzen sekula eskurik zikindu ez duena blaitu arte.



Durango. LENIOR ELORRIAGA.



Durango. LENIOR ELORRIAGA.



Elorrio.



Zornotza.

# Emakumeen bizitza eta aldarriak erdigunean

Martxoaren 8ko greba feministak jarraipen zabala eduki du, eta mobilizazio jendetsuak egin dituzte. Eguerdian eta iluntzean emakumez bete ziren herrietako kaleak.



Mallabia.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2019ko martxoaren 9a  
17. urtea - 754. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





Otxandio.



Berriz.

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**  
Urteetan zehar berotzen joan den mugimenduak eztanda egin zuen iazko martxoaren 8an, eta eztanda hori biderkatu egin zen atzo. Milaka emakume irten ziren kalera, mugimendu feministak deitutako grebagaz bat eginez, era masibo, alai eta aldarrikatzailean. Emakumeen bizitza eta aldarrikapenak erdigunean ipini zituzten. Herri batzuetan gauerdian hasi ziren greba iragartzen, eta besteetan goizean goizetik. Mural margoketak, kazeroladak, otordu autogestionatu eta kolektiboak, mobilizazioak... Eguerdian protesta jendetsuak egin zituzten herririk herri, eta arratsaldean Durangon, Elorrion eta Zornotzan elkartu ziren eskualdeko feministak. Jendetza batu zen kaleetan, berriro ere egutegian kolore morez margotutako egunean.

Durangon, esaterako, zutabean banatuta hasi zuten eguerdiko mobilizazioa, *Lurrikara Feminista* deiturikoa. Greba bost ardatzen

**"Berrantolaketa soziala" eskatu zuten feministek, "bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa"**

bueltan oinarritu zuen mugimenduak, eta Durangoko zutabe bakoitza ardatz horietako bati lotuta zegoen. Kontsumoari lotutako zutabea merkatu plazatik

irten zen, pentsioena udaletxetik, zaintzarena Joxe Miel Barandiaran erresidentziatik, enpleguarena Francisco Ibarrik eta ikasleena institutu aurretik. Gero, Ezkurdin batu ziren guztiak, ekitaldi bategaz amaitzeko.

**Zaintzan, planto**

Zaintza izan zen greba egunean indarririk handiena hartu zuen gaia. Zaintzaren "berrantolaketa soziala" eskatu zuten feministek, "bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa". Eta, atzo planto eginda, zaintza euren ardurapean uzten dela erakutsi gura izan zuten. "Emakumeek planto egiten badugu, dena gelditzen da". Igarri zen eragina, bai. Logika horren harira, gizonak greba babesteko modua zaintza-lanez arduratzea zela adierazi zuten. Zaldibarren, esaterako, zaintzarako txandak egin zituzten, aurretiaz antolatutako batzartu eta gero.

Zaintzaren gaiak gainera, bizitza prekarioen aurka azaldu ziren greba egunean, eta indarkeria matxistatik, heteroaraurik, arrazakeriarik eta gerrarik bako bizitza baten alde.

**Grebaren jarraipena**

Greba feministak jarraipen handia eduki zuen. Durangoko sektore publikoan, adibidez, eragina "erabatekoa" zela azaldu zuen ELA sindikatuak. Ikastetxeak eta komertzio asko zarratuta, beste dena batzuk mobilizazioetarako itxi-

ta... Egunean zehar ez kontsumitzeko deia egin zuen mugimendu feministak. Industrian jarraipen anitza eduki zuen: Abadiñoko Polipalen %80, Zornotzako Microdeco

**Durangoko sektore publikoan, adibidez, eragina "erabatekoa" izan zen**

**Mugimendu feminista: "Emakumeek planto egiten badugu, dena gelditzen da"**

Borpen %60, CIE Amaian %50, Durangoko Brussen %33, Iurretako Cafes Baquen %20, Elorrioko Tecnian %65, Rotenbergherren %20... ELAk datu horren balioa nabarmendu du. "Sektore maskulinizatuak direnean, askoz ere gehiago kostatzen da greba egitea", adierazi dute sindikatutik.

Bestalde, Durangoko Landako Gunean, Dendak Bai elkarteak antolatutako Aukera Azokaren lehen eguna zen atzokoa, eta arratsaldeko mobilizazioagaz bat eginez, ordu bi lehenago zarratu zuten azoka. Elkarteak egindako ikerketaren arabera, komertzioen jabeen %75 emakumeak dira, eta dendetako langileen %80 ere, emakumeak.



Zaldibar.



Atxondo.



Abadiño.



Iurreta.



MIREN  
AMURIZA PLAZA

Berriz, bertsolaria

## “...ustelak lurpera, bizitza da handiena”

### Zertarako greba?

Laboa datorkit burura egunotan: “Lilurarik ez, ez dago itzultzerik...”. Lilurarik ez, tronpatzerik ez, kontsolatzerik ez... erailketa matxistak, sexu erasoak, homofobia, arrazakeria, soldata arrakala, sexuen arabera lan banaketa edota lan erreproduktiboaren gutxiespena betiketuz dituen jendartearekiko. Horrexegatik mobilizatuko gara martxoaren 8an ere, oihuz eta kantuz: “...ustelak lurpera, bizitza da handiena”.

SONIA  
OCEJA SALAZAR

Durango, Kirolaria

## “Greba eginda, gizartea aldatzen ari garela esaten dugu”

### Zergatik da garrantzitsua greba?

Pertsona denentzat aukera berdinak gura baditugu, argi dago emakumeen alde egin behar dugula. Egoera honen salaketa egiteko aukera bat da greba. Kirol mundua oso errealitate matxista da eta erabaki eta ardura postuetan gizonetzkoak dira nagusi. Honen ondorioz, hartzen diren erabakiek ez dituzte emakumeen beharrezkoak kontuan hartzen. Greba eginda, emakumeok elkarregaz, gizartea aldatzen ari garela esaten dugu.

MARISA  
BARRENA LARRUZEAZornotza, Mugimendu  
Feministako kidea

## “Pentsaezina zen hau; lehen baino askoz ere gehiago gara”

### Zelako sentsazioa duzu?

Hainbeste belaunalditako emakumeak ikusita, sekulako poza dut. Orain 50 urte, pentsaezina zen hau. Gu hasi ginenean baino askoz ere gehiago gara.

### Zertarako greba?

Eskubide asko grebari esker lortu dira. Greba hau erronka bat izan da, eta emaitza ikusita, asmatu dugula esango nuke. Oztopoak ere izan ditugu, kontra daudenen hasarrea ekarri du, baina bagabiltza aurrera egiten.

MARIA PILAR  
MINTEGIA ZUAZO

Iurreta, Pentsioduna

## “Alargunen pentsioak parekatzea eskatzen dugu”

### Zer eskari duzue pentsiodunek?

Alargunentzat pentsioak parekatzea eskatzen dugu, gizonak eduki duen pentsioagaz ez dizulako bizitzeko ematen. Ezintasuna duten emakumeei asistentzia ematea ere eskatzen dugu. Bestalde, zaintzari buruz, amek dena egin izan dugu, eta orain ere egiten dugu, aldea txikiagoa den arren. Lanen ardura ere emakumeok eramaten dugu. Hala ere, gauza askotan pausoak eman direla ikusten dut, aurrera goazela.

AMAIA FERNANDEZ  
AZKUNAGA

Zornotza, M8 Plataforma

## “Saretze lanaren ondorioa izan zen atzoko erantzuna”

### Zelan bizi zenuen atzoko eguna?

Goizean kafe-tertulia bat egin genuen egoitzetako egoeraren inguruan, eta arlo horretako langile batek bere esperientzia kontatu zuen. Horren ostean egindako kontzentrazioaren inguruan ere zaintzagaz lotutako elementuak eskegi genituen. Gero, 340 bat emakume batu ginen bazkaltzeko. Jende asko batu zen ekitaldi denetan. Aurreko egunetan egindako saretze lanaren ondorioa izan zen atzoko erantzun jendetsua.

ERIKA  
LAGOMA POMBAR

Durango, Irakaslea

## “Hunkigarria izan da, greba oso anitza izan delako”

### Zein sentsazio izan zenuen atzo Durangoko mobilizazioetan?

Sentsazio oso ona. Ekitaldi jendetsuak izan genituen Durangon, goizetik hasita, eta pozik gaude etorritako jende kopuruagaz. Aurtun, gainera, hunkigarria izan da, greba oso anitza izan delako. Jende gazte pila batu zen atzo, goizean goizetik antolatutako ekintzetan. Jendeak aldarri hori bere egitea lortu du Mugimendu Feministak, eta feminismoa denona dela aldarrikatzea lortzen gabiltza apurka.





NEREA  
LIZARRALDE SAMPEDRO

Zaldibar, Dominikako kidea

## "Espero baino jendetsuagoak izan dira ekimenak"

**Zelako jarraipena eduki dute mobilizazioek Zaldibarren?**

Espero genuena baino jendetsuagoak izan ziren ekimenak. 00:00etan kazeroladagaz hasi ginenean, ikusi genuen Zaldibarko emakumeek ondo erantzungo ziotela greba deialdiari, eta goizeko egitarauko ordutegia aurreratu egin behar izan genuen, bildu ginen jendetzagatik. Emakume kateagaz Euskal Herria kalea osorik bete genuen. Komertzio eta tabernetan ere igarri zen greba.



JULENE  
LAZKANO ZENITAGOIA

Elorrio, Mugimendu feministako kidea

## "Gu geratzen bagara, mundua geratzen dela erakutsi dugu"

**Zelan joan dira Elorrioko mobilizazioak?**

00:30ean egin genuen kazeroladagaz ekin genion 24 orduko grebari. Gero, 09:00etan, emakume piloagertu zen mobilizazioetarako lemak sortzeko tailerrera, baita gainontzekoetara ere. Elkarretaratzea egin genuen 12:00etan, eta, horren ostean, Mannequin Challenge bat egin genuen manifestazioan zehar, ideia bat argi erakusteko: gu geratzen bagara, mundua geratzen dela.



RAKEL  
ODIAGA ASTIGARRAGA

Durango, Berbaroko langilea

## "Bizitza duina behar dugu, zapalkuntza eta biolentzia bakoa"

**Zergatik egin duzu Martxoaren 8an greba?**

Euskal Herriko Mugimendu feministen dossierrean zera irakurri dut "berreskuratu dezagun lapurtu diguten lekua, gelditu dezagun basakeria eta mundu berri bat eraiki!" Ez da arrazoi nahikoa Martxoaren 8an greba egiteko?

Bizitza erdigunean jarri behar dugu, bizitza duina behar dugu, zapalkuntza eta biolentzia matxistarik bakoa. Gizartea eraldatzea da helburua.



IRENE  
LOIZATE SARRIONANDIA

Durango, Kirolaria

## "Emakumeen kirola ez dela espektakulua?"

**Kirolariek ere baduzue zer aldarrikatu martxoaren 8an.**

Ehun neska zangoak bizkor, tropelean, inguruak lokatzez ziprirtinduz. Majida, atlas menditik jaitsi berri, indartsu; aldapa gora, kurba, behera, putzuen gainetik salto! Adi! Maria atzetik aurrera, Oizpekoen burugogortasuna, azken metroak eta biak parean! ... Hau ez dela espektakulua? Teleberriko kirol atala (ala mutilen futbolarena esan behar da?) halakoa balitz, nik ez nuke kanalez aldatuko.



UXUNE  
MARTIZNEZ MAZAGA

Garai, Soziologoa

## "Aurreiritziek eta estereotipoek mugatzen gaituzte"

**Zelan ulertzen duzu martxoaren 8a?**

Emakumeok ez ditugu aukera berberak. Aurreiritziek eta estereotipoek mugatzen gaituzte eta, horien arabera, lan jakin batzuk esleitzen zaizkigu eta beste batzuk ez. Gehiago graduatzen gara, baina goi karguetan gizonak dira nagusi. Soldata txikiagoak ditugu lan berdina eginda. Munduan 6 herrialdek baino ez dituzte lan arloko lege parekideak. Martxoaren 8a arrakalarik gabeko gizarte zabal eta justuaren aldarria da.



MARIA  
OÑATE EREÑAGA

Durango, Gizarte Langilea

## "Berdintasunean, aniztasunean eta errespetuan hezi ditzagun"

Neskatila baten ama izan nintzenetik, ezaguna egingo zaizuen beldur hori sentitu nuen. Amatasunean sentitu daitezkeen ohiko beldurrez gain, bere segurtasunaren, sexualitatearen eta aukeren inguruko beldurrak gehitu zitzaizkidan. Neska baten ama zarenean, beldur horiek sumendi baten lez sortzen diren bitartean berdintasunaren alde lan egingo dugu. Guztionganako berdintasunean, aniztasunean eta errespetuan hezi ditzagun haurrak, behingoz errealtate bihurtu dadin.



## Epailleak arrazoia eman dio Atxondoko Udalari, eta Adifek 238.455 euro ordainduko ditu maisuen etxearengatik

Apatako igerilekura heldu baino lehen dagoen eraikina AHTaren Abadiño-Atxondo trenbidea egiteko desjabetu dute



Maisuen etxea Apatatik Arrazolarara bidean dago, igerilekura heldu baino lehen.

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

AHTaren Abadiño-Atxondo tarteko trenbidea egiteko, Adifek hainbat lur desjabetuko zituela iragarri zuen orain hamarkada bat baino gehiago, tartean Atxondoko maisuen etxea. Apatatik Arrazolarara bidean dago maisuen etxea, igerilekura heldu orduko. Etxearen gainetik 1,6 kilometroko biaduktua egiteko proiektua dagoela jakinarazi zion Adifek Atxondoko Udalari, eta, horretarako, derrigorrezkoa zela etxea desjabetzea.

Orduan, desjabetze prozesu bat jarri zuten martxan, eta Atxondoko Udalak 269.591 eurotan baloratu zuen etxea. Desjabetzearen bultzatzaile den Adifek, ostera, maisuen etxearengatik 60.000 euro inguru egokitzen zitzaizkiola

### Maisuen etxearen gainetik 1,6 kilometroko biaduktua egiteko proiektua dago

adierazi zion Atxondoko Udalari. Zenbateko horregaz ados ez zegoenez, udalak epaiketara eraman zuen kasua. "Lotsagarria iruditu zitzaigun maisuen etxeari eman zioten balioa. Ez geunden konforme, eta epaiketara jotzea erabaki genuen", adierazi du David Cobos Atxondoko alkateak.

### Lurzoru ez urbanizagarria

Maisuen etxea herrian bertan dago, errepide ondoan. Hala ere, hango lurzorua ez da urbaniza-

garria. "Adif horretaz baliatu zen, lurzoru ez urbanizagarriaz, eta horregatik eman gura izan zion balio hori Apatan bertan dagoen etxeari", kritikatu du alkateak. Hala ere, etxebizitza bi dituen eraikin horrek lurzoru urbanoaren ezaugarri berdinak dituela jakitera eman zion alkateak epaileari.

### Adifek ezarritako zenbatekoagaz ados ez zegoenez, udalak epaiketara eraman zuen kasua

### Eraikinak lurzoru urbanoaren ezaugarri berdinak ditu Atxondoko Udalaren ustez

Azken urteotan epaiketetan izan dira eta, hainbat errekurtsoren ostean, epailleak Atxondoko Udalari eman dio arrazoia. Beraz, Adifek ia 239.000 euro ordaindu beharko dizkio udalari desjabetu dion eraikinarengatik. "Epaia honen ez du guk eskatzen genuena oso-osorik onartzen, baina pozik gaudela esan dezakegu", esan du Cobosek. "Egia esan, dirua baino ez da, baina 12 bat urte daramatza-gu trenaren kontu honeguz, eta, azkenean, egindako lan guztiak fruituak eman dituela ikusi daiteke", gaineratu du David Cobosek. Horrez gain, "justizia egin" dela adierazi du.

## Otxandioko Udalak kale-argi gehiago jarriko ditu, puntu ilunak argitzeko

### OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Udalak beste bultzada bat emango dio herriko puntu ilunak argiztatzeko asmoari. Oraingoan, beste gune bi argiztatuko dituzte, beti ere LED sistema erabilia. Aduana zaharretik kanposantura doan bidean, sei-zazpi kale-argi jarriko dituzte. Bidez batez, kanposantu barruko argiteria hobetuko dute. Bigarren proiektua Elizabarriko ermitatik Kerixarantz doan bidea argiztatzea da, beste sei-zazpi kale-argi ipinita.

## Txupinazoagaz abiatuko dute Zornotzako 7. Gazte Eguna

### ZORNOTZA • J.G.

Zazpigarren Gazte Eguna goizetik gauera arteko egitarauagaz dator. Zazpigarren edizioari keinu bat egin guran, ekitaldien ordutegiak zenbaki horregaz lotura izango dute. 10:37an txupinazoa jaurtiko dute, erraldioen eta Bizkargi 1937 Zanpanzarren laguntzagaz. 12:07an Zornotza Usansoloren aurka lehiatuko da gazte olinpiadetan, iazko errebantxa lez. Gero, Zelaietako karpan bazkaritarako batuko dira. Etxebarria aita-seeek alaituko dute bazkalostea. Arratsaldean, Elektrotxuflagaz Luis Urrengoetxea kalera eramango dute jai-giroa. Eguna biribiltzeko, Xavi Sarriak eta Zopilotes Txirriaosek kontzertua emango dute gauean.

## Albizuri eta Garmendia, EH Bilduren alkategaiak

Berrizko eta Otxandioko EH Bilduren zerrendaburuak dira

### DURANGALDEA • M.Z./J.D.

EH Bilduk aste honetan jakitera eman duenez, Josu Albizuri eta Egoitz Garmendia izango dira EH Bilduren alkategaiak Berrizen eta Otxandion, hurrenez hurren.

Berrizko hautagaiak, Josu Albizurik, 35 urte ditu eta lanbide heziketako irakaslea da. 2011-2015 legegintzaldian EH Bilduko zinegotzia izan zen. Ohar bidez jakinarazi dutenez, hilabete honetan zehar egingo dute Berrizko hauteskunde

zerrenda osatuko duten pertsonak izendatzeko prozesua.

Bestalde, Otxandioko hautagaiak, Egoitz Garmendiak, 38 urte ditu eta ingeniari tekniko mekanikoa da. Une honetan euskara irakaslea da Gasteizen, eta azken 6 urteotan koordinatzaile lez ardurak eduki ditu EH Bilduren egituraren baitan. Otxandioko hauteskunde zerrenda osatuko duten pertsonak izendatzeko prozesua ere martxoan zehar egingo dute.



Josu Albizuri, Berrizko alkategaia.



Egoitz Garmendia, Otxandioko alkategaia.

## Izurtzako Udaleko webgunea '.eus' domeinura aldatzeko araudia onartu dute

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Gaur egun, [izurtza.net](http://izurtza.net) helbidea du udalaren webguneak. Baina udalak [.eus](http://.eus) domeinua eskuratu du eta, prozedura amaitzen denean, [izurtza.eus](http://izurtza.eus) izango da. Joan zen asteko udalbatzarrean aldaketa horren inguruko araudia onartu zuten. Helbide elektronikoetan, ostera, BiscayTIK fundazioaren [@bizkaia.eu](http://@bizkaia.eu)-gaz jarraituko dute. BiscayTIK-ek tokiko erakundeei laguntzen die, euren sistemak modernizatzen.



# LABeko ordezkari batek Zaldibarko Mecanizados Mear enpresan jasandako eraso sexista salatu du sindikatuak

Kontzentrazio bat egin zuten ordezkariari babes agertzeko; osoko bilkuran aurkezturiko mozioa onartu zuten, EH Bilduren botoekin



Joan den eguneko mobilizazioko irudi bat.

**ZALDIBAR • A.M.**

"Jazarpn sindikalik ez, eraso sexistarik ez!" lelopean elkarretaratzea egin zuten hamarka herritarrek Zaldibarko udaletxe parean. LAB sindikatuak egin zuen deia joan den asteko protestarako. Hain zuzen ere, sindikatu abertzaleko ordezkari batek eraso sexista salatu zuen Mecanizados Mear enpresan, 2018ko urtarrilean. "Eraso larria da, langileen ordezkaria izateaz gainera delegatua emakumezkoa delako, eta erasoak konnotazio sexistak eduki zituelako", adierazi dute. Enpresak neurririk hartu ez izana ere salatu dute. Egitekoa zen epaiketa atzeratu egin zen, eta data berria ezarri barik dago oraindik. Mearreko ordezkarien berbetan, baina, eraso sexisten aurkako pro-

tokoloa eraso gertatu zen egunean bertan jarri zuten martxan.

Elkarretaratzea egiteaz gainera, LABek mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran. Enpresari erasotzailerik ez onartzeko eta etorkizunean horrelako erasoak ekiditeko neurriak hartzeko eskatzen diote. "Zuzendaritzak ardura zuzena du gertakizunetan, langileak presionatuz giro

**Enpresako jabeen esanetan, eraso gertatu zenean jarri zuten martxan protokoloa**

txarra sortu duelako; ezinezko produktioa eskatzen die langileei, eta oihiak eta erantzun eskasak ohiko bilakatu dira", azaltzen du mozioan bertan. EH Bilduren aldeko sei botoekin onartu zuten mozioa. EAJ abstenitu egin zen. "Eraso irmoki gaitzesten dugu. Kasua, baina, epaitegietan dago, eta alde biei entzun diegu. Orain ez dagokigu guri erabakirik hartzea", diote jeltzaleek.

## Mendiolako errepideko lanei ekiteko eskatu du EH Bilduk

**ABADIÑO • A.M.**

Administrazioen artean "pilota pasatzeari" utzi eta "ahal bezain laster" lanei ekiteko eskatu zuen Abadiño EH Bilduk osoko bilkuran. Izan ere, urte bi eta erdi inguru daramatza Mendiolako errepideko arazoak konponbiderik barik. Errepidea errekararen alboan egotera, harri-lubeta bat jarri zuten. Abadiño EH Bilduk

URaren baimena behar du errepideko zati horretan konponketak egin ahal izateko. Iazko irailan, tramite hori azkartzeko eskatu zion udalak, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Baimen hori heldu orduko "beharrezko paperak" prest edukitzeko eskatu dio EH Bilduko Mikel Urrutiak udalari, "auzotarrek atzerapen gehiagorik jasan ez dezaten".

## Abadiño parekidea eraikitzeke neurriak, EAJren eskutik

**ABADIÑO • A.M.**

Maiatzeko udal hauteskundetan Abadiño EH Bilduk aurkeztu duen zerrendako emakumeek neurri sorta aurkeztu dute Abadiño parekideago bat eraikitzeke. Alde batetik, mugikorrerako doako aplikazio bat sortzea, balizko erasoak salatu eta lekuko gisa informatzeko edo etxerako laguntza eskatzeko. Bestalde, emakumeak lan munduan sartzeko, udaletik enplegarritasun politikak bultzatu behar direla uste dute. Horrez gain, udal langileak genero politikan trebatzea proposatu dute.



Abadiño EH Bilduko emakumeak.



### Gure profesionalen ahotsa



**"Enpresetan dagoen datuen zientzialarien beharrari erantzuteko, Business Data Analytics gradu berria sortu dugu"**  
Leire Legarreta

Bi hamarkadaz banku-sektorean jardun ondoren, datuen analisia dihardu orain, buru-belarri, Leire Legarretak. Datuen zientzialari hau Mondragon Unibertsitateko Business Data Analytics gradu berriaren koordinatzailea da. Bilbon emango den gradu hau aitzindaria da Euskal Herrian eta Big Datan eta datuen analisia trebatutako profesionalen beharri erantzuteko sortua dago.

**Datuak, Big Data...guztien ahotsa dabilzan gaiak dira. Zertan datza iraultza berri hau?**  
Une oro konektaturik bizi garenez, gure gailu elektronikoen, gure enpresek eta gure etxeek egunero datu pila bat sortzen dituzte. Gauzak horrela, enpresak, datu horiek ondo kudeatuz gero, balioa eman dezaketela konturatu dira. Izan ere, datuez ari garenean, informazioaz eta ezagueraz ari gara. Informazio horri esker, enpresek oraindik hobeto ezagutuko dute eta, are gehiago, etorkizunari iragartzeko gai izango dira.

**Benetan? Datuei esker etorkizuna iragarriko dugu?**  
Hau esatean zera esan nahi dut: datu hauek enpresetan zein gizarteetan ematen diren kausa-efektu erlazioak ezagutzen lagunduko diguten lehengaiak dira.

**Adibideren bat?**  
Osasun sektorean oso argi ikusten da. De-

nok jabetzen gara oso garrantzitsua dela gaitz jakin bat hartzeko joera izateko eragiten dizkiguten faktoreak zeintzuk diren jakitea. Ezagutza hori gaitz horri aurre egiteko erabiliz, gure osasuna hobeto zainduko dugu. Baina hau adibide bat baino ez da: marketinean, industrian, energia- edo finantza-sektorean datuen analisia gure bezeroen edo industria-prozesuen joerak identifikatzeko lagunduko digute. Politikariek, elitezko kirolariek edota modako enpresek ere, esaterako, datuen analisia erabiltzen dute.

**Eta zeintzuk dira erabiltzen diren erremintak analisia burutzeko?**  
Informazio hori jaso eta maneiatzeko erreminta teknologikoak behar ditugu; batetik, programazioko erreminta teknologikoak eta Datu Baseak eta, bestetik, erreminta matematikoak joera horiek modelizatu ahal izateko, estatistikako teknikak eta adimen artifiziala erabiliz.

**Adimen artifiziala entzutean roboten munduan datorkigu gogora. Horretaz ari zara?**  
Bai, baina ez horretaz bakarrik. Adimen artifiziala esatean makina bati "pentsatzen" erakusten dioten teknikez ere ari gara.

**Esparru honetan aritzeko datuen zientzialaria izan behar duzu, ezta?**  
Bai, hala da. Datuen zientzialariok makinei zenbait prozesu modu eraginkorrago batean egiten irakasten diegu. Baina esparru honetan beste lanbide berri gehiago ere sortzen ari dira: datuen analista, datuen ingeniari eta arkitektoak, bisualizazio-adituak, eta abar.

**Silicon Valley-n egongo bagina bezala?**  
Amazon, Google, Facebook eta halako enpresetan horrelako profleak arakasta handia dutela oso agerikoa da; baina ez da hain urrutira joan beharrik, hemen ere, Durangon bertan, baditugu datuen zientzialariak (barreak)! Euskadiko enpresa askotan sartzan ari dira horrelako profesionalak, nahiz eta ez dugun jaso horretarako formazio espezifikorik. Gehienetan, matematika, ingeniari eta enpresa mundutik gatoz.

Hutsune hau betetzeko asmoz, hain zuzen, Mondragon Unibertsitatean Business Data Analytics gradu berria sortu dugu.

**Interesgarria dirudi.**  
Bai ikasle izan ginen garaian, bai lanean hasi berri, gutako askok horrelako ikasketaren bat egin izana eskertuko genukeen. Baina, ezagutza-arloak berak suposatzen duen berritasunetik harago, esan beharra dago Business Data Analytics gradu ikasleek modu berritzaile batean ikasteko aukera ere izango dutela. Lau urtean zehar, learning from reality metodologiarekin arituko dira; hau da, lehen-lehen egunetik, talde-lanean eta sektoreko profesionalen laguntzarekin, enpresen arazo errealek ebazti beharko dituzte.





## Neskutz Rodriguez izango da Herriaren Eskubidearen zerrendan bigarrena

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Neskutz Rodriguez izango da Herriaren Eskubidearen zerrendan bigarrena, Julian Rios alkategaiaren ostean. Batzar-kidea izan da lau urteotan, eta aldaketa arrazoitu du. "Pertsonengandik hurbil dagoen egiazko politika egin gura badugu, beharrezkoa dugu herrigintzaren aldeko apustu garbia egitea eta auzoei ahotsa ematea". Durangon aldaketarako beharra nabarmendu du, eta bere lehentasunak "benetako" politika feminista, gardentasuna eta parte-hartzea izango dira. Herriaren Eskubideak hilaren 12an aurkeztuko du zerrenda osoa, 19:00etan, Elkartegean.



Kris Fernandez, Amaia Palacio eta Karmele Elexpe merkatariak, Aukera Azokaren aurkezpenean.



Iazko Aukera Azokako irudia.

## 31 establezimenduk jarri dituzte standak Landako Gunean antolatzen ari diren 14. Aukera Azokan

Dendak Baik antolatutako azokan, haur zein helduentzako arropa, oinetakoak, kotxeak, etxeko tresnak eta beste hainbat produktu jarriko dituzte salgai, beharpenagaz

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Durango, Abadiñoko eta Iurretako 31 establezimendu batu dira Landako Gunean antolatzen ari diren Aukera Azokan. Merkatariak biltegian gordeta dituzten produktuak beharpenagaz saltzea da Dendak Bai elkarteak

Jaurlaritzaren eta Durangoko Udalaren laguntzagaz antolatzen duen ekimenaren helburua. Haur zein helduentzako arropa, kiroltako eta optikako produktuak, oinetakoak, etxerako tresnak, kotxeak eta beste hainbat produktu salgai jarri dituzte

Landako Guneko standetan. Aurretan, gune gastronomikoa eta tailerrak izango dira nobedade nagusiak. Umeentzako ekintzak ere antolatuko dituztela adierazi du azokaren aurkezpenean Gozatu gozotegiko Karmele Elexpe arduradunak.

**Beharpenen arriskua**

Beharpenek sortzen dioten ardura mahaigaineratu zuen prentsaurrekoan Folderreko Amaia Palaciok. "Jendea beharpenetan erostera ohitu da eta hori ez da ona gure moduko komertzioarentzat, guk ez dugulako margen handiekin jokatzeko". Palaciok azpimarratu duenez, Amazonek min handia egin dio sektoreari.



Artekalea kaleko 14. zenbakian zabaldu dute lokala.

## Durango jeltzaleek lokala inauguratu dute, Artekalean

Joan zen asteko egunean egin zuten inaugurazioa; Xabier Arzalluz gogoan, minutu bateko isilunea egin zuten

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Durango EAJk hauteskundeak bitarte "elkargune" izan gura duen lokala zabaldu du, Artekalean. Hainbat militante eta herritar batu ziren joan zen eguneko inaugurazio ekitaldian. Ander Gorrotxategi Durango EAJko presidentek Xabier Arzalluz gogoan izan zuen, eta haren aldeko

minutu bateko isiluneagaz hasi zuten ekitaldia. Mireia Elkoroiribe alkategaiak eta zerrendakide ugari ziren gain, Jon Darpon osasun sailburua ere egon zen ekitaldian, Elkoroiriberi babesa emateko. Alkategaia Darponen kabineteko burua izan da. Alkategaia esan zuen penaz uzten duela lana, baina uneotan "Durangogaz betebeharra" duela.

## EH Bilduk bost espazio berri proposatu ditu aparkatzeko arazoak hobetzeko

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Durangoarren arduren gainean urtero egiten diren inkestetan, aparkatzeko arazoa "beti goiko aldean" agertzen da, EH Bilduk ohar batean adierazi duenez. Horrez gainera, aparkatu guran dabilzan kotxeek eragiten duten "alferrikako

**Landakon zein estazioan dauden lur azpiko aparkalekuak 24 orduz zabaltzea gura du EH Bilduk**

kutsadura" gogoratu dute. Gobernu Taldekoen "utzikeria" salatu eta hainbat proposamen batzen dituen plan integrala plazaratu dute, arazo horri irtenbidea emateko. Gernikako Arbola Plazan, hilerriaren alboan, Iparzabalarran, Larrasolotan eta Urko kalean parking berriak egitea proposatu dute, eta Landakon zein estazioan dauden lur azpiko aparkalekuak 24 orduz zabaltzea.



Durango ordezkaritzak Guatemalan ateratako argazkia.

## Durango ordezkariek Guatemalan garatutako proiektuak ezagutu dituzte

Udal ordezkariez gain, 'Durangotik hegoaldera' lehiaketako irabazleek egin zuten bidaia, otsailean

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Medicus Mundi Bizkaiak Guatemalan garatzen dituen proiektu bi babesten ditu udalak, eta horiek ezagutu zituzten, otsailean. Pilar Rios alkateordea (PSE-EE), Olaia Albizu (EAJ) eta Eider Uribe (EH Bildu) zinegotziak, eta Maria Villar teknikaria joan ziren udalaren ordezkaririk ezak. Euregaz batera,

erakunde biek antolatutako *Durango Hegoaldera* lehiaketako irabazleak ere joan ziren: Ane Amantegi, Ane Arbo, Ainhoa Olasso eta Mikel Gandarias. Proiektu bietan, indarkeria sexista jasan duten emakumeak artatzen dituzte. Osasun arreta emateaz gainera, laguntza psikologikoa eta aholkularitza eskaintzen diete.



# Udalak beste pauso bat eman du estazioko proiektua garatzeko, udalbatzak obrak geratzea agindu arren

Durango Udalak behin betiko onarpena eman dio proiektuari, martxoaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durango Udalak uztailean onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren tren geltoki zaharreko proiektua, dekretu bidez, eta, gero, alegazio fasea zabaldu zen. Orain, behinbetiko onarpena eman dio, martxoaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Urtebeteko epea ematen du geltoki inguruko urbanizazio lanak amaitzeko, eta handik urtebetera etxe dorreen eraikuntza hastea ezartzen du.

Kontua da 3.000 durangarrek eskatutako galdeketa bidea ere hasita dagoela, eta, horregatik, kontsulta egin arte obrak geratzea proposatu zuen Erabaki plataformak urtarileko bilkuran. Mozioa aurrera atera zen, EH Bilduren, Herriaren Eskubidearen eta PSE-EEko Mauricio Garcaren aldeko botoekin. Beraz, udal gobernuak otsailaren 22an hartutako eta martxoaren 1ean aldizkarian publikatutako erabakia ez dator bat bilkurako mandatuagaz.

Plataformaren ustez, udal gobernu "gezurretan" dabil eta az-

**Erabaki: "Beste behin ere engainatu gaituzte, galdeketa bat egingo dutela esanez"**

ken erabaki hau "durangarrei egini adarjotze" bat da. "Hitz politikak entzuten ditugu, baina errealitatea beste bat da. Beste behin ere engainatu gaituzte, galdeketa bat egingo dutela esanez eta prozesua atzeratzen duen batzorde bat era-

tuz", adierazi dute. Udal gobernuak proiektua "egungo beharizanetara" egokitzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, baina tramitazio ofiziala aurrera doa. Horren atzean, jokaldi bat dagoela uste du Erabaki plataformak.



Trenbide zaharreko lurrak.

## Elorrioko turismo bulegoaren bisita gidatuak %34 igo dira azken hiru urteetan

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak jakitera eman duenez, turismo bulegoak gorakada esanguratsua izan du 2016az geroztik; azken hiru urteetan, turismo bulegoaren bisita gidatuak %34 igo dira. Horrez gain, kontsultak %29 igo direla esan dute, eta estatu espainia-

## Estatu espainiarretik eta Europatik etorri diren bisitarien kopurua %7 eta %30 igo da, hurrenez hurren

rretik eta Europatik etorri diren bisitarien kopurua %7 eta %30 igo dela, hurrenez hurren.

Horrez gain, turismo bulegoa saritu dutela adierazi du Elorrioko Udalak, kalitate turistikoaren etengabeko hobekuntzarako konpromisoagatik eta turismo-helmuga baten kalitatearen kudeaketarako sistema integrala ezartzeko egindako ahaleginagatik.

AURREKONTU  
PARTE HARTZAILEAK

2020  
Amorebieta-Etxano

Amorebieta-Etxano  
auzolanean

Danon artean  
Amorebieta-Etxano  
hobetzen

Martxoaren 1etik  
apirilaren 17ra arte

amorebieta  
etxano  
UDALA AYUNTAMIENTO  
www.amorebieta-etxano.eus



# Fundigeleko orubean duen lurzattia salduko du Iurretako Udalak, bertan 10 etxebizitza eraikitzeko

Ia 600.000 euroan jarriko du salgai 420 metro koadroko lurra, eta alkateak aurreikusi du aurten hasia eraikitzen



Fundigel bota ostean geratutako orubean, guztira 84 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita; 2015ean sinatu zuten hirigintza hitzarmena.

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Fundigel bota ostean geratu zen orubearen urbanizatzeko proiektua behin betiko onartu ostean, bertan eraikitzen hasteko bidea zabaldu zuten joan zen azaroan. Orain, bertan duen lurzattia saltzea erabaki du Iurretako Udalak. Ia 600.000 euroan jarriko ditu salgai lursaileko 420 metro koadroak, bertan hamar etxebizitza eraikitzeko. Iñaki Totarikaguena alkateak aurreikusi du aurten hasi daitezkeela eraikitzen.

2011n bota zuten Fundigel eta, 2012an, fundizioak utzitako lursailaren berpartzelazioa onartu zuten —Gailur Alde enpresa etxegilea eta Belacortu familia ziren jabeak—. 2015ean hirigintza hitzarmena sinatu zuten, eta udalari zegokion hirigintza aprobetxamendua ere zehaztu zuten: udalari lurren %15 eman zioten, metro karratutan, eta 152.607 euro dirutan. Lurzati hori da saldu gura dutena.

Fundigelek utzitako lursailean, guztira 84 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita. Udalarena den lursailean 10 etxe eraikiko dituzte.

**Urbanizatzeko proiektuan, eraikitzen hasteko epea zehaztu zen: 2020. urtea jarri zuten epemuga lez**

te. Beste lursaila zati bitan dago banatuta, lurjabe bigaz: batean 18 etxebizitza eraiki daitezke; bestean, 56.

### Lanak hasteko epemuga

Urbanizatzeko proiektuan, deskontaminazio lanak amaitzeko eta eraikitzen hasteko epea zehaztu zen. 2020. urtea jarri zuten eraikitzen hasteko epemuga moduan. Litekeena da aurten hasia eraikitzen.

## Putzu septiko berriak egiteko eta zaharrak berritzeko laguntzak arautu dituzte

### MAÑARIA • J.D.

Putzu septikoak egiteagatik edo zaharrak berritzeagatik diru-laguntzak jaso daitezke. Eguazteneko udalbatzarrean aho batez onartu zuten laguntzak arautzen dituen ordenantza. Diru-laguntzak errentaren arabera banatuko dira. Familiako unitate kopurua eta urteko errenta kantitatea kontuan hartuta, taula bat egin dute jaso daitezkeen laguntzak zehazteko. Beti ere, lanen kostuaren %75era artekoa izango da gehieneko kantitatea. Diru-laguntza eskatzerakoan lehentasuna izango dute putzu septikorik ez dutenek eta errentarik baxuena duten familia unitateek. Orain, erakusketa publikora aterako dute ordenantza, eta alegazioak egiteko aukera egongo da.

## Martxan da Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaietako kartel lehiaketa

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martxan da dagoeneko Berrizko aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Berrizko Udalak ohar bidez jakitera eman duenez, lanak apirilaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dira, udal liburutegian. Bestalde, maiatzaren 11rako emango dute kartel lehiaketako irabazlearen berri. Lehiaketako irabazleak 400 euroko saria izango du.

## IURRETA / DURANGO • M.O.

Durango eta Iurretako pentsiodunek manifestazio bateratua egingo dute datorren astelehenean. 12:00etan hasiko da mobilizazioa, irteera bigaz. Durangarrak udaletxeko plazatik irtengo dira, eta iurretarrak, Askondotik. Gero, Madalenen elkartuko dira.

Hain justu, astelehenean 100 urte beteko dira erretiro behartua eta zahartzaroko derrigorrezko aseguruia ezarri eta 65 urtegar prestaziorako langile guztiak kontuan hartu zirenetik. Orain 30 urte ere pausoak eman zirela diote oharrean, baina 2011ko eta 2013ko lan erreformek "pentsioei eraso" egin dietela. "Ez dugu asko aurreratzen, ez dugu eskubiderik finkatzen eta atzera egin dugu lan-baldintzetan", kritikatu dute.

# Durango eta Iurretako pentsiodunak, batera

12:00etan hasiko da mobilizazioa, irteera bigaz



Iazko urtarrilaz geroztik, pentsiodunak astelehenero irteten dira kalera.

## Garaiko nagusien elkartekoek 2019rako ekintzak adostuko dituzte

### GARAI • M.O.

Domeka honetan, urteko batzar orokorra egingo du Garaiko San Migel nagusien elkarteak, 11:00etan, Otea-Loran elkartean. 2018ko diru kontuen egokieraren berri emango dute, eta 2019rako ekintzen proposamenak aurkeztu ere bai. Gainera, batzordeko ardurak berrituko dituzte. Bestalde, hilaren 13an Deustuko unibertsitatara eta Ur Partzuergora doako bisita egingo dute nagusiek, 14:50ean Garaitik irtenda.

## Hondakin organikorako poltsak eskuratzeko makina berria jarri dute

### MALLABIA • J.D.

Edukiontzia marroi bat baino gehiago daude Mallabian. Horiek erabiltzen dituzten herritarrei eginkizuna errazteko, hondakin organikoetarako poltsa eskuratzeko makina bat jarri du Mallabiko Udalak. Kultur etxea baino beherago dago makina, udaletik informatu dutenez. Arlo horretako txartela duen herritarrek txartela edukiontzira gerturatu beharko du lehenengo, eta hori egindakoan makinatik poltsa berri bat irtengo da.





## Hareek denporak!

### Hiltegitxe Gaztetxea, herriko gazte feministen topaleku

Iazko martxoaren 8 historikoa-  
ren ostean, atzoko egunez ere  
indar erakustaldi itzela egin  
zuen feminismoak, parekide-  
tasunaren aldeko milaka lagun  
kalera irtenda. Azken urteetan  
eraldaketa sozial handia izan da  
arlotan, atxikimendu anitza  
eta eragin handikoa lortuta.

Urteetan atzera eginez gero,  
martxoaren 8a ez zen hain be-  
rezia, eta mugimendu feminis-  
tak ere ez zeukan hainbesteko

indarrik. Horregatik, akaso,  
aparteko balioa daukate orduan  
jaiotako proiektuek. Berrizko  
Hiltegitxe gaztetxean, esaterako,  
zenbait gazte talde feminista  
sortu zuten 2002an, eta herriko  
emakumeek bizi zuten egoera-  
ren berri eman zuten kaleetan.  
Gainera, lagun artean erabiltzen  
ziren berbeekin hiztegi sexista  
bat osatzeko ideia ere aurkeztu  
zuten ANBOTOGaz eginiko elka-  
rrizketan. **M.O.**

## Politikan

Goiztidi  
Diaz Basterra  
EAJ



### Hiru urte zain

Zinegotzi gisa, bakoitzak bere  
pentsamenduak defendatzen  
ditu, baina beti ere kontuan  
eduki behar da horrek ez duela  
inor bestea baino hobea egiten.  
Udalaren funtzionamenduaren  
inguruan tutik ere ulertzen ez  
nuela sartu nintzen duranga-  
rron etxean. Orduan, Juanjo  
Ziarrusta izan nuen maisu la-  
netan. Ulertzen ez nuen dena  
nire liburuxkan idatzi eta, on-  
doren, galderaz josten nuen  
gure alkate ohia, dena ulertu  
arte. Eta halan, udaleko lanetan  
murgildu nintzen, eta ikusiz,  
entzunez eta batez ere jaramon  
eginez asko ikasi dut. Garran-  
tzitsua da gauzak nola egiten  
diren ikastea eta are garrantzi-  
tsuagoa da zergatik batzuetan  
gauzak kanpotik ikusten diren  
bezain erraz ezin direla egin  
ulertzea. Lan bikaina egiten du-  
zue teknikariek, idazkariek, di-  
ru-zaintzaileek, udaltzaingoa  
eta langile guztiek orokorrean.  
Eskerrik asko zuen pazientzia-  
gatik eta erakutsi didazuen  
denagatik.

Garrantzitsua da nondik ga-  
tozen gogoratzea eta nora joan  
nahi dugun jakitea. Horretara  
bidaiakide galantak izan dit-  
tut ondoan, 12 urte hauetan  
taldekide bikainak izan ditut.  
Eskerrik asko guztiei bihotz  
bihotzez. Baina aipamen bere-  
zia Aitziber Irigorasi eta Marijo  
Balierrri. Eskerrik asko bioi,  
eman didazuen guztiagatik,  
bikainak zarete. Eta, nola ez,  
Iker Ocejia, langile petoa, a ze  
momentuak egunero jaietako  
zezenak direnean. Hamaika  
ikusitako biok! Eskerrik asko  
Iker, zu bai jatorra.

Nire eskerrik beroenak 12  
urte hauetan edozein momen-  
tutan ondoan egon zareten guz-  
tiori. Harro nago nire herriaz eta  
harro nago bere alde lan egin  
izanaz. Eskerrik asko, Durango!

## Durungaldea asteen

### Bizikletak garbitzeko gunea zabaldu dute, Gure Kirolak frontoiaren ondoan

**Zornotza |** Bizikletak garbitzeko gunea berria astelehene-  
tik domekara egongo da erabilgarri, 08:00etatik 22:00etara, Gure  
Kirolak pilotalekuaren ondoan. Azpiegitura erabili gura dutenek  
Ametx txartela erabili beharko dute. Txartela ez daukatene-  
k [amtx.eus](http://amtx.eus) webgunean eskatu dezakete, edo Larrea kiroldegira edo  
Zelaieta Zentrora joanda. Ametx txartela dutenek aktibatu egin  
beharko dute zerbitzu berrirako. Udalak 25.000 euroko inber-  
tsioa egin du zerbitzu berria sortzeko.

### Zornotzako ikasleek elikadura zirkularra zer den ikasi dute Iraunkor elkarteagaz

**Zornotza |** Zornotzako hainbat ikastetxetan elikadura zirku-  
larraren gaia lantzen ari dira ikasturte honetan. Ildo horretatik,  
eredu hori Zornotzan sustatzen dabilen Iraunkor elkarte-  
ko Urtza Uriarteren azalpenak entzun eta herriko ekoizleak ezagutu dituz-  
te asteen. Larrea, Urritxe, El Carmelo, Karmengo Ama, Lauaxeta  
eta Andra Mari ikastetxeetako ikasleek parte hartu dute.

### Askotariko arropa eta produktuak ohi baino merkeago erosteko aukera eskainiko dute Zornotzako azokan

**Zornotza |** Dendariak elkarteak merkealdien azoka antolatu du  
domekarako, 10:30etik 14:30era, Zornotzako Herriko Plazan. Esa-  
terako, udazkeneko eta neguko arropak ohi baino prezio merke-  
goan eskuratu ahaliko dira. Zerbait erosten dutenak produktuz be-  
teriko otzara baten zozketan sartuko dira. 11:00etan umeentzako  
ekintzak egingo dituzte: globoflexia, aurpegi pintaketa eta abar.



### Oinezkoek lehentasuna izango dute eskola gunera eta Etxegora heltzeko bidean

**Iurreta |** Eskola eremura eta Etxego gaztelekura sartzeko bidean,  
Iurretako Udalak hango ingurua egokituko du, aparkalekuak kendu  
eta oinezkoen lehentasuna emateko. Bertan egoteko eta paseatzeko  
leku bihurtu gura dute. "Karrajuaren parean, begiratoki izateko  
balio ko duen plataforma bat sortu gura dugu, eskailera eta guzti.  
Inguru guztian led argiteria, iturri bat eta altzariak jarriko ditugu",  
azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak. Proiektuak 98.000 euroko  
aurrekontua du eta onartu berri dute. Lanak maiatzean esleitu gura  
dituzte, irailean hasten den ikasturterako amaituta egon dadin.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren  
zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko  
iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko  
dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

 **Seguros  
Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK  
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
[jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

**DIBA**  
K O O P E R A T I B A

**Durungaldeko  
Baserritarren  
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92




Asma ezazu mezu ezkutua. Esaera zahar bat da.

BEHIAK hitza osatzen duten hizkiak erabiliz, osa ezazu **SUDOKUA**

Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

B			A	K
A	E		B	H
H	A		I	E
I			H	B
A			E	
K			I	

**BEHIAK**



Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

**ITZALA** Zein da irudiaren itzal zuzena?



**Estropezua**

Estropezu egin duen emakumeak oinetakoa apurtu du, eta horrez gain, bi gauza desagertu zaizkio eta berri bat agertu. Zeintzuk?





[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)



## Gogoa non...

Jarraian zer datorren asmatzen baduzu, esaera zahar ezagun bat osatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zoro eta bihotza edonon.
- Gogoa non, zu beti berton.
- Gogoa non, lagunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normalki Amoroton.
- Gogoa non, poza beti da on.
- Gogoa non, lanak hor konpon.
- Gogoa non, zangoa han.



## IKUSI MAKUSI

Goiko laukian dauden elementu guztiak beheko laukian ere badaude, lau izan ezik. Zeintzuk dira?

## Osatu

Erdizka margotuta dauden zazpi irudi hauetatik hiru elkartuz gero, etxea behar bezala osatuko duzu. Batura horretan elementuek (kea, teilatua, atea...) behin bakarrik agertu behar dute koloreztatuta. Har ezazu kolore zuria gardena balitz bezala.



Aste Santua Fun Weeks. Hiri-kanpamentuak ingelesez 3 urtetik 10 urtera





# [ MARTXOAK 8 ]



## 'Futbolariak eta printzesak'

UMEENTZAKO ANTZERKIA

IURRETA :: Martxoak 15

### Topiko sexistak hautsi gura dituen komedia, Iurretan

Odei eta Lur klasetik ihes egin duten neska-mutilak dira. Besteen-gandik ezberdin sentitzen dira, ez dituztelako neska edo mutil bati egozten zaizkion arauak bete gura. Lurrek Lur izan gura du eta Odeik Odei, inork esan barik nola jokatu behar duten. Inposaketa eta etiketa sexistarik barik mundu batean bizi gura dute. Iurretako Ibarretxe Kultur Etxean taularatuko dute, martxoaren 15ean, 17:00etan.

### Martxoaren 9an

**BERRIZ antzerkia**  
Liceum Club, 20:00etan,  
Berrizko Kultur Etxean.

**DURANGO kontzertua**  
Abesti feministen  
lehiaketaren finala,  
19:00etan, Andra Mariko  
elizpean.

**ELORRIO antzerkia**  
'Rita' (Txalo  
Produkzioak), 19:00etan,  
Arriola antzokian.

**ELORRIO mendi martxa**  
Urkiolara mendi martxa,  
08:30ean, herriko plazan.

**IURRETA herri lasterketa**  
Milia Morea, 12:00etan,  
Askondo kalean hasita.  
Gero, bazkaria.

**IURRETA aurkezpena**  
Emakumeen txirrindulari  
taldearen aurkezpena  
(Iurreta Furesa eta CAF  
Turnkey Engineering),  
19:00etan, Askondon.

**ZALDIBAR afaria**  
Afaría eta dantzaldia,  
21:00etan, Olazar  
frontoian.

**ZALDIBAR erakusketa**  
Helmuga emakume  
elkarteak egindako  
lanak, Liburutegi  
Zaharrea. Martxoaren  
10ean ere bai.

**ZORNOTZA azoka**  
Emakume Artisanu eta  
Nekazarien Azokaren  
XXII. edizioa, 10:00etan,  
Zubiondo parkean.  
Txistulariak, trikitilariak,  
herri kirolak, dantzariak...

**ZORNOTZA ipuinak**  
'Marikalanbre bizitzaren  
laborategian' (Ana  
Galarraga ipuin  
kontalaria), 12:00etan,  
udal liburutegian.

### Martxoaren 10ean

**BERRIZ lasterketa**  
X. Añeketan, 12:00etan  
Berrizburun.

**DURANGO lasterketa**  
XIV. Lilakrosa, 12:00etan  
Ezkurdin. 11:30ean,  
kamiseten banaketa  
'Medicus Mundi Bizkaia'-  
ren alde.

**ZALDIBAR kirola**  
Emakumeen txirrindulari  
bira.

### Martxoaren 12an

**ELORRIO hitzaldia**  
'Zaintzak agerian ipini,  
Elorrion egiteke dagoen  
zeregina'. Hizlaria:  
Esther Alonso Vallina.  
Iturri kultur etxean,  
18:30ean.

### Martxoaren 13an

**ELORRIO dokumentala**  
'Bobbi Jene', 19:30ean,  
Iturri kultur etxean.

**ZALDIBAR irteera**  
Irteera, Helmuga  
emakume elkarteak  
antolatuta.

### Martxoaren 14an

**ABADIÑO zinema**  
Zinegoak Hedapena:  
Bilboko Gaylesbotrans  
16. Naziorteko Zinema  
eta Arte Eszenikoen  
Jaialdia, 18:30ean, Errota  
kultur etxean.

**DURANGO mahai-ingurua**  
'Mujeres y deporte:  
pasado, presente y  
futuro', 18:30ean,  
Andragunean. Mendibeltz  
kirol taldea.

**ELORRIO antzerkia**  
'Bakean dagoena,  
Bakean utzi', 20:00etan,  
tabernaz taberna.

**IURRETA antzerkia**  
'Sex o no sex' (Virginia  
Imaz- Oihulari Klown),  
19:00etan, Ibarretxe kultur  
etxean.

**ZALDIBAR bakarrizketak**  
'Erradikalak gara'  
bakarrizketak,  
19:00etan, Liburutegi  
Zaharrea.

### Martxoaren 15ean

**ABADIÑO tailerra**  
'Gorputzak badaki',  
Amalurra elkartearen  
eskutik (Begoña  
Juaristi), 10:00etatik  
12:00etara, Errota kultur  
etxean.

**BERRIZ antzerkia**  
'Lau', 18:15ean, Berrizko  
Kultur Etxean. Umeentzat.

**IURRETA antzerkia**  
'Futbolariak eta  
printzesak' (Eidabe),  
17:00etan, Ibarretxe kultur  
etxean.





## 'Interrupted' komedia lotsagabea taularatuko du Teatro In Vilo taldeak

**ANTZERKIA** | Perfektua dirudien bizitza di-da batean infernu nola bilakatu daitekeen erakutsiko du, gaur, San Agustin kultur-gunean taularatuko duten *Interrupted* antzezlanak. Madrilgo Teatro in Vilo antzerki taldeak

proposatutako komedia barre-garri honetan, Anabel da protagonista, ziztu bizian bizi den egungo emakumea. Larrutik ordainduko du hori Anabelek. Bere egunerokoak zorrotasunez funtzionatzen duen antzerki-

makina ematen du, zorrigaitzoak zakarki zartatuko duen arte. Orain gutxi arte segurtasuna eta ongizatea saldu izan dizkigun burbuilean inspiratutako komedia lotsagabe hau 20:00etan taularatuko dute.

### Martxoaren 9an

**ABADIÑO argazkia**  
**'Ni Zu Bi' ekimena**  
**babesteko**, 13:00etan,  
Txanporta plazan.

**DURANGO musika**  
**Berri Txarrak**, 21:00etan,  
Plateruena kafe antzokian.

**DURANGO azoka**  
**Aukera Azoka**, Landako  
Gunean (10:00-14:00 /  
17:00-21:00). **Gozogintza**  
**tailerra**, 12:00etan. **Ipuin-**  
**kontalaria ingelesez**,  
13:00etan. Arratsaldean,  
**3D inprimaketa saioak**.

**ZORNOTZA 7. Gazte Eguna**  
**Txupinazoa: Bizkargi**  
**1937 zarpantzarrik eta**  
**erraldoiak**, 10:37an.  
**Gazte olinpiadak:**  
**Zornotza vs Usansolo**,  
12:07an. Ostein,  
**Zaparrada batukada.**  
**Bazkaria**, 15:17an. Gero  
**Etxebarria aita-semeak.**  
**Elektrotxufla**, 18:27an,  
**Kontzertua: Xavi Sarria**  
**+ Zopilotes Txirriaos**,  
22:07an Zelaian.

### Martxoaren 10ean

**DURANGO azoka**  
**Aukera Azoka**, Landako  
Gunean (11:00-14:00  
/ 17:00-19:00).

**Argazkigintza tailerra**  
**mugikorragaz**, 12:00etan.

**DURANGO musika**  
**Berri Txarrak**, 21:00etan,  
Plateruena kafe antzokian.

**GARAI batzarra**  
**Nagusien Elkarte**  
**batzar orokorra**.  
11:00etan, Otea-Lora  
elkartean

**IURRETA mendi irteera**  
**Urko mendira**, 09:00etan,  
Aldaparapen. Zaldai mendi  
taldeak Maiztegiko Guraso  
elkarteagaz antolatuta.  
Informazioa: [zaldai@  
hotmail.com](mailto:zaldai@hotmail.com)/626740969  
telefonora deituta.

**IURRETA nordic walking**  
**Nordic Walking ibilbidea**,  
10:00etan, kultur etxetik.

### Martxoaren 13an

**ELORRIO dokumentala**  
**'Bobbi Jene'**, 19:30ean,  
Iturri Kultur Etxean.

**GARAI irteera**  
**Bisita gidatua Deustuko**  
**Unibertsitatera eta Ur**  
**Partzuergora**. Garaitik  
irtenda, 14:50ean,  
Adinekoen Sailak  
antolatuta.


### Martxoaren 14an

**DURANGO solasaldia**  
**Hitzez eta ahotsez**,  
19:00etan, Bizenta Mogel  
liburutegian.

## Martxoko agenda



<b>10</b>	<b>"ZALDAI MENDI TALDEA"</b> URKOr (795m) mendi irteera <b>9:00</b> Irteera; Aldaparape - Itzulera: Eguerdia Umeez egiteko aproposa: Trabaku - Urko - Trabaku Info+: <a href="mailto:zaldai@hotmail.com">zaldai@hotmail.com</a> , Tel.: 626 74 09 69 <b>"GIZARTE ONGIZATE SAILA"</b> <b>10:00</b> Nordic Walking ibilbidea, 2 ordu - Irteera: Ibarretxe Kultur Etxea
<b>11</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> <b>15:45</b> "Paperezko hegoak" D.B.H.ko 1. Maila <b>18:00</b> Emakumeen literatur tailerra <b>"ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA"</b> <b>18:30</b> Zoru pelbikoaren indartzea
<b>12</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> <b>17:00</b> Helduen irakurketa kluba: "Vernon subutex 1" Virgine Despentes <b>18:30</b> Helduen irakurketa kluba: "King Kong teoria" Virgine Despentes
<b>13</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> <b>10:00</b> XL irakurketa kluba <b>16:45</b> AZALERAKO IPUINAK 0-18 hilabetekoak <b>17:30 19-36</b> hilabetekoak <b>18:30</b> IRAKUR LAGUNAK
<b>14</b>	<b>"DURANGOKO AMANKOMUNAZGOA ADINEKOEN ZERBITZUA"</b> <b>17:30</b> Hitzaldia: "Aurretiazko borondateak". Nagusien Etxea. Antzerkia aretoan, kultur salla <b>19:00</b> Helduen antzerkia: Sex o no sex" Virginia Imaz-Oihulari Klown. Sarrera gonbidapenagaz.



'Agian' dokumentala, martxoaren  
12an, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

## Zinea

**:: Berriz KULTUR ETXEA**  
· **Legó film 2**  
domeka 10: 17:00 (euskaraz)

**:: Durango ZUGAZA**  
· **Capitana Marvel**  
zapatua 9: 17:30/19:30/22:30  
domeka 10: 17:00/19:00/21:30  
astelehena 11: 18:30/ 21:00  
martitzena 12: 20:00  
eguztzena 13: 20:00

· **70 Binladens**  
zapatua 9: 20:15/22:30  
domeka 10: 19:30/21:30  
astelehena 11: 18:30/21:00  
martitzena 12: 20:00  
eguztzena 13: 20:00

· **Corgi. Las mascotas de la reina**

zapatua 9: 17:00  
domeka 10: 16:30  
· **Cómo entrenar a tu dragón 3**  
zapatua 9: 17:00  
domeka 10: 17:30

**:: Elorrio ARRIOLA**

· **Carmen y Lola**  
zapatua 9: 22:00  
domeka 10: 20:00  
astelehena 11: 20:00

· **Ploey, ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo**  
zapatua 10: 17:00

**:: Zornotza ARETOA**  
· **Destroyer. Una mujer herida**  
zapatua 9: 19:30/ 22:00  
domeka 10: 20:00  
astelehena 11: 20:15

· **Stubby, un héroe muy especial**  
zapatua 9: 17:00  
domeka 10: 17:00  
martitzena 26: 18:00  
eguztzena 27: 18:00

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



# Sarrera guztiak salduta, azken kontzertu bigaz agurtuko du Durangaldea Berri Txarrak taldeak Plateruenean

Modu batera edo bestera, taldeagaz harremana eduki duten Durangaldeko bost lagunen lekukotza jaso du ANBOTOk Berri Txarrak-en kontzertuen harira



Berri Txarrak.

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

Durangaldean ere igarri da Berri Txarrak-en agurrak sortu duen lurrikara. Agur birako kontzertuetako bi Plateruenean izango dira, gainera. Aspaldian ikusi gabeko irudiak gogora ekarri zituzten emanaldietarako sarrera erosteko ilaran itxaroten zeuden zaleek. Ordu eta erdian agortu ziren martxoaren 9ko eta 10eko kontzertuetarako tiketak.

25 urteko ibilbidean, jarraitzaile andana bildu du Gorka Urbizuren taldeak eskualdean. Belaunaldi oso baten ererserkia da, adibidez, Elorrioren lekutuz den *Bisai Berriak*. Modu batera edo bestera, Berri Txarrak-egaz harremana eduki duten Durangaldeko bost lagunen testigantzak bildu ditu ANBOTOk, lagin moduan. Igor Iglesias durangarrak *Ikusi Arte* birako hainbat kontzertutan lan egingo du, adibidez. Abesti itsaskor eta zuzeneko indartsuekin mundu osoan barrena zabaldu du euskara Berri Txarrak-ek, konplexurik barik. Hain zuzen ere, hori estimatu dute Iratxe Azcaratek eta

Maddalen Iturriagagoitiak. Herbereetatik jarraitu dio taldearen ibilbideari Azcaratek; Corken (Irlanda) bizi da Iturriagagoitia abadiñarra. Hamarka kontzertu eskaini ditu Berri Txarrak-ek Durangaldean, horietako asko, bertako taldeekin. Lor

**2005. urtean, elkarregaz jo zuten Lor eta Berri Txarrak taldeek, Plateruenean**

**Belaunaldi oso baten ererserkia da Elorrioren lekutuz den 'Bisai Berriak' abestia**

taldeko Lander Irazolari eta Seiurteko Iokin Elortzariere galdetu diegu agurrari buruz.

Zapatuan eta domekan, hirukoitek azkeneko zapalduko du Plateruena. Ikusi arte, Berri Txarrak.



**IGOR IGLESIAS MORENO**  
Soinu teknikaria

“**Bizi guztirako gogoratuko dut soinua egin nien lehenbiziko eguna**”

**DURANGO •** Nire ustez, BTX Euskal Herriko talde erreferente bat izatetik historikoa izatera pasatuko den taldea da. Euskal kultura mundu osora zabaldu duen talde bat, estatuan top talde bat. Musika bizitzeko duten pasioa gertutik ikusteko aukera izan dut, eta bizi guztirako gogoratuko dut eurentzat soinua egin nuen lehen eguna: 2018ko maiatzaren 12a, Lleidan. Gitarra jotzen hasi eta “...astelehena da gaur eta Gorka da nire izena” esan ostean sentitu nuen sensazioa.



**MADDALEN ITURRIAGAGOITIA ARANBURU**  
Erizaina

“**Etxetik urrun euskal talde bat ikusteko lehenbiziko aukera izan zen hura**”

**ABADIÑO •** Iazko udaberrian, autoa hartu eta Corketik Dublinera joan ginen azkoitiar bi, kataluniar bat eta lauok, BTX ikustera. Urtebetetik gora neraman Irlandan bizitzen, eta etxetik urrun euskal talde bat ikusteko lehen aukera izan zen hura. The Grand Social aretoan Irlandako euskaldun guztiak geundela zirudien. Sekulako kontzertua izan zen, eta beti edukiko dut gogoan Dublineko kontzertu hura, zuzenean ikusi nituen azkenengoa izan da eta.



**IOKIN ELORTZA SARASKETA**  
Seiurte taldea

“**Inoiz inork amestu ez genuena lortzera heldu da Berri Txarrak**”

**BERRIZ •** Garaikideak gara. Zein hizkuntzatan abestuko genuen aukeratzen ez genuen garaikoak. Gure erreferente musikal guztiak etxetik ordu bira bizi zirenekoak. Bizi genuenari abesten genuena. Baina *Jaiio.Musika.Hil* eta inoiz inork amestu ez genuena lortzera heldu da Berri Txarrak. Izandakoari muzin egin barik, gu islatuz, lortutakoak gureak eginez. Dena aldatu da, bai, baina, zorionez, gure erreferenteek ordu bira egoten jarraitzen dute. Eskerrik asko, BTX.



**IRATXE AZCARATE ONAINDIA**  
Itzultzailea

“**Nire bizitzako soinu banda sortu dute, etapa bakoitza abestiekin betez**”

**DURANGO •** Nire bizitzako soinu banda sortu dutela esango nuke, etapa bakoitza abesti desberdinekin betez. Ia bizi osoa Euskal Herritik kanpo bizi izan naiz, eta sekulakoa izan zen 2012an Herbereetan ikustea. Gure hizkuntza horrelako indarrez eta harrotasunez entzuteak harturiko erabakian berretsi ninduen: Herbereetan bizi arren, alabekin beti euskaraz egitea, alegia. Azken kontzertuetara joango naiz. Nire bizitzako etapa berrietan, abesti berrien falta sumatuko dut.



**LANDER IRAZOLA MORENO**  
Lor taldea

“**Musikan sekretua, lana eta esfortzua direla erakutsi ziguten**”

**ELORRIO •** Lor-en ibilbidean hainbat une partekatu ditugu BTXguz. 18 urteko umemoko batzuk ginela, Gorkak berak ekarri zigun Elorriora lehen kontratu diskografikoa. Hasiberrian aholkatu gintuzten, eta hainbat bider partekatu genuen oholtza. 2005ean Plateruenekoa ondo gogoan daukagu. Erakutsi ziguten musikan esfortzua eta lana direla sekretua, pasioa eta balioak oinarria, eta handitasunaren aurrean txikitasunari eusteak duen garrantzia. Eredua izaten jarraituko dute.



# Gero eta erreklamazio gehiago egiten dira bide telematikoen bidez Kontsumitzaileen Bulegoan

2018an zehar kontsumitzaileen eskubideei buruzko 1.160 kontsultari erantzun die Kontsumitzaileen Informaziorako Amankomunazgoko Bulegoak

## PUBLIERREPORTAJEA • A.M.

**Durango Merinaldeko Amankomunazgoko Kontsumitzaileen Bulegoan, Alazne Balentziaga Atutxa eta Garazi Errasti Silloniz arduratzen dira Durango Merinaldeko Amankomunazgoko udalerrietako bezero eta erabiltzaileak informatu eta gidatzeaz. Aitor Lopez Vazquez da Amankomunazgoko presidentea (EH Bildu) legegintzaldi honetan. Lanaldi erdiz aritzen den bigarren langile bat du zerbitzuak 2017tik, eta horrek beste erakunde batzuei erreklamazio gehiago bideratu ahal izatea ahalbidetu du.**

### Zeintzuk dira egiten dituzuen jarduerak?

Hiru multzotan banatu daiteke gure jarduera. Alde batetik, kontsulta zerbitzua eskaintzen dugu, presentziala, posta elektronikoa edo telefono bidez. Bestetik, kaltetuen eta enpresen arteko bitartekaritza lanak egiten ditugu. Hirugarrenik, erreklamazioa izan den enpresagaz akordioa lortu ez denean, egindako prozesuaren berri ematen dio KIUBek dagokion erakundeari, idatziz. Atal honi garrantzi handia eman dio KIUBek aurrean, eta jarraipen berezia egin zaio.

### Noren eskura daude zerbitzu hauek?

KIUBek Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Zaldibar eta Mañariko kontsumitzaile eta erabiltzaile guztiei eskaintzen die zerbitzua, euren zailtasunak kontsumo zuzenbideagaz zerikusia badu eta eurak partikularak badira.

### Erreklamazio kopuruetan, zeintzuk dira sektore azpimarragarrienak?

Guztira, KIUBen 1.227 bitartekari-

ritza egin dira, eta, erreklamazio kopuruagatik, telekomunikabideen sektorekoak izan dira erreklamaziorik gehienak. Arazorik ohikoenak fakturekin, konpainia batetik bestera aldatzeko egiten diren eskaeretan edo baja eskaeretan egoten dira.

Bankuen sektorean ere hainbat bitartekaritza egon dira, baina gutxiago, Hipoteka Eratze Gastuen erreklamazio kopurua jaitsi egin

“

**Telekomunikabideen sektorean izan dira erreklamazio gehien; fakturetan eta konpainia aldaketetan**

■

delako. Kexa edo erreklamaziorik gehien biltzen duen hirugarren sektorea hornikuntzena da. Ur horniduraren, gasaren eta argiaren inguruan egiten dira erreklamaziorik gehienak. Bidaia eta aseguruiei buruzko erreklamazio ugari ere izan ditugu.

### Jendeak ezagutzen du KIUBek eskaintzen duen zerbitzua?

Gero eta kontsumitzaile gehiago etortzen dira, eta gero eta kontsulta gehiago egiten ditugu. Gure ustez, eskaintzen dugun zerbitzua ona delako da hori. Egia esan, gero eta ezagunagoa da.

2018. urtean posta elektronikoa bitartez egin diren kontsulten gorakada azpimarratzekoa iruditzen zaigu. Baita hitzordu eskarien gorakada ere. Orokorrean, admi-



Aitor Lopez Vazquez, Alazne Balentziaga Atutxa eta Garazi Errasti Silloniz.

nistrazio publikoan gertatzen ari den bezala, herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dituzte bide telematikoak harremanetarako.

### Zeintzuk dira aurrera begirako erronkak?

Norabide bitan egiten dugu lan, eta beharrean jarraituko dugu ildo bietan hobetzeko. Alde batetik,

“

**Prebentziozkoa ere bada gure zerbitzua, eta, aurrera begira, bide horretan sakondu gura dugu”**

■

gure zerbitzua zuzengarria da, konpondu egin gura baita. Bestetik, baina, prebentziozko zerbitzu bat ere bada, eta ildo horretan sakondu gura dugu. Aurrean, kontratuak egin aurretik KIUBek egindako prebentzio lana azpimarratzekoa izan dela iruditzen zaigu, erreklamazio kopuru handia saihestu da eta.

**Bulegoa zabalik:** Astelehenetik barikura 09:30-13:30

Martitzen eta eguenetan: 16:00-18:30

Martitzen eta eguenetan aurrez hartu behar da hitzordua.


**Helbidea:** Askatasun etorbidea, 2 (atzekaldea) - 48200 Durango

KIUB kontsultak telefonoz: 94 620 707


KIUB kontsultak posta elektronikoa bidez: omic.mdurango@bizkaia.org eta

omic2.mdurango@bizkaia.org

## UDALERRIAK



## SEKTOREAK



- Telekomunikabideak %28,60
- Bankuak %22,74
- Hornikuntza %12,81
- Bidaiak %8,07
- Aseguruak %5,30
- Gehikariak %5,06
- Internet bidezko erosketak %4,64
- Txikizkariak %3,59
- Automobilak %3,43
- Auto alokairuak %0,98
- Garraio enpresak %0,91
- Akademiak %0,58
- LTZ %0,42
- Etxebizitzak %0,17
- Higiezin agentziak %0,08
- Beste batzuk %2,62



# “Lotsatia naiz eta ez nuen uste bakarka disko bat aterako nuenik”

Onintze Garcia abeslari zornotzarrak disko berria argitaratu du otsailean; bakarlari legez kaleratzen duen lehen lana da pop-rock abestiez osatutako ‘Punto de partida’



**Onintze Garcia Arana**

Abeslaria  
Zornotza | 1985

**MUSIKA** • KAROLINA SUAREZ

**Onintze Garcia zornotzarrak lehen lana kaleratu du bakarlari legez. Paco Salazar da diskoaren ekoizlea. Sona handiko musikariek egin du lan Salazarrek. Besteak beste, Dani Martinegaz, Amaia Monterogaz eta Celtas Cortos taldeagaz egin du lan.**

**Zer aurkitu dezakegu kaleratu berri duzun diskoan?**

Hamar kantuz osatutako diskoa da. Urteak daramatzat kantuek idazten, eta euskarazkoak Seiren taldean erabili ditugu. Gaztelaniazkoek ez zuten bat egiten taldearen estilogaz. Horiekin proiektu berri bat hastea erabaki nuen, eta hona kaleratu berri dudana diskoa.

**Zein estilotan kokatuko zenuke ‘Punto de partida’?**

Jokin Lacalleren influentziak medio, Seirenen pop estiloa eta folka nahasten genituen. Honetan bakarrik nagoenez, pop-rocka egiten nabil. Horixe izango litzateke aldaketa nagusia, nahiz eta kantu bakoitzak bere ezaugarriak dituen.

**Zer kontatzen dute letrek?**

Letra batzuk niri gertatutako istorioak dira. Beste batzuen istorioetan sartuta eta nire azalean sentituko banitu bezala kontatutakoak ere badituz. Egoera horietan zer egingo nukeen abesten dut. Lehen pertsonan idatzita daude guztiak.

**Zein da kantuak gaztelaniaz kaleratzeko arrazoa?**

“

**Ahotsari eman gura izan diogu protagonismoa; exigentzia maila handiagoa izan da”**

Ez dago arrazoi berezirik horretarako. Batzuek hizkuntzak nahasten dituzte disko berean; niri, oster, ildo berdinari eustea gustatzen zait. Urteetan zehar euskaraz eta gaztelaniaz idatzi izan dut. Euskarazkoak Seiren taldean erabili ditugu eta gaztelaniazkoak kutxa batean gordeta egin dira orain arte.

**Nork gehiago hartu du parte diskoan?**

Paco Salazar ekoizleak baxua, gitarrak, teklatura eta programazioak grabatu ditu. David Soler pedal steelean aritu da. Jokin Lacallek konposaketan lagundu dit eta koroak egin ditu. Azkenik, Mondy Alonso perkusioaz arduratu da.

**Bakarlari legez argitaratzen duzun lehenengo diskoa da.**

Lotsatia naiz eta ez nuen uste bakarka disko bat aterako nuenik. Seiren taldean Jokinegaz batera egon naiz beti, eta babestuta sentitzen nintzen. Gero, kantu hauek defendatzeko unea iritsi zen. Beldur asko nituen, baina ingurukoek asko animatu ninduten.

**Paco Salazar da diskoaren ekoizlea. Nolako izan da beragaz lan egitea?**

Ikaragarria. Esperientzia oso ona izan da eta gauza asko ikasi ditut beragaz. Bere moduko pertsona batez lan egin ahal izatea zorte handia da. Bere ekarpenak hoberrako izan dira, momentu oro.

**Ahotsa erdigunean jarri duzue.**

Normalean, beste modu batera grabatzen dira diskoak: azkenerrako utzi ohi da ahotsaren grabaketa. Baseak grabatu ditugu lehenengo, eta ahotsa gero, musika tresnak baino lehenago. Ahotsari eman gura izan diogu protagonismoa; exigentzia maila handiagoa izan da. Ahotsaren arabera moldatu ditugu gainerako soinua.

**Seiren taldearen amaiera suposatzen al du ibilbide berri honek?**

Standby batean gaudela esango nuke. Parte hartzen gabiltzan proiektuetan %100ean egotea gustatzen zaigu Jokini eta bioi. Orain, *Punto de partida* lanagaz gabiltza eta ezinezkoa da proiektu biak modu eraginkorrean aurrera eramatea. Ez dut esango taldearen amaiera denik.

**Non ikusi ahalko zaitugu laster?**

Aurkezpen txikiak egiten nabil orain. Disko sinadurak eta kontzertu akustikoak. Malagan hasi nintzen, Bartzelonara joan nintzen gero, eta Bilbon ere egin dut aurkezpena. Martxoaren 9an Valentzian egongo naiz. Hile bi barru hasiko gara kontzertuekin, eta diskoa entzuteko denbora eman gura diogu jendeari.

**Gai librea**

Ritxi Blanco Aguilera  
Ikertaria



**Intentsitatea**

Niri kontzertu intentsoak gustatzen zaizkit. Arima rockeroa izan arren, ez naiz dezibelioekin lotzen ohi dugun azaleko definizioarekin identifikatzen; benetako intentsitatea beste gauza bat da nire buruan, guztiz abstraktoa eta lausoa akaso. Intentsitatea ezin da deterministikoki neurtu: ez da bolumena, sentimendua da, nortasuna.

Izan ere, izaera eta kontrolperik gabeko energiak ezereztu egiten du maiz musika, proposamen artistikoak txikituz, gehiegizko airea duen puxika bat lehortzen den bezala. Barealdiak zein ekaitzak, edozeinek eman diezaioke zentzua gure bihotzari: zenbat isilunek asetzen gaituzte edukirik gabeko garrasi panfletarioek baino gehiago? “Oihukatzeak ala entzuteak, zerk egiten gaitu libre?” abestu zuten behin Bidasoa aldean.

Bizia, osasuntsua eta iraultzailea den aldi berean, intentsitateak ez du inor edo ezer zapaltzen. Burujabea den heinean, entzulegoaren sentimenekin elkartrukean bizi da, eta ez lehian. Zentzu horretan ederki definitu zuen Juan Ramón Jiménez olerkariak: “Intentsoa den hori ez da gora edo behe- ra hedatzen, ez eskuinera, ez ezkerrean, (...) bere baitan existitzen da eta ez da inoiz hiltzen: mugagabea da barne limite propioaren barruan”. Pairatzen dugun eredu inpersonal eta homogeneoaren aurkako elementu (kontra)kultural gisa ulertu behar da, musikaz haratago doan inertzia alegia. Ez da espantsioa edo hedapen mugagabea: oreka utopikoa da.

**ERRIGORA**

**MARTXOAREN 7TIK 22RA**

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA —5 LITROKO BIDOIETAN— ETA ARROZA ZEIN KONTSERBAK —12 ONTZIKO SORTETAN— EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN [WWW.ERRIGORA.EUS](http://WWW.ERRIGORA.EUS) WEB GUNEAN

**CERAMICAS**

**MACOBER**

MATERIAL DE CONSTRUCCION

**MACOBER**

Chimeneas

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727



# BAGARA ALA EZ GARA?

EGUN ON **IRRIBARRE BAT** ARGIA KALEAN **LAGUNARTEA** LASAI PASEATZEA  
**AUZOKO BIZITZA** ERAMANGO DIZKIZUT POLTSAK? **SOLASALDITXO BAT**  
GOZOKI BAT TXIKIARENTZAT **GORAINTZIAK AMATXURI**  
NIRE NEBAREN LANA **BIZKAIBUSA** EGOITZAK  
**GARENA**

**BIZKAIKO MERKATARITZA**







**Ainhoa Ruiz de Infante Kortazar**  
Master Cup txapelketako pilotaria  
Otxandio | 2001

## "Master Cupean pilotari gazte asko dabilta; pilota ibilbideari jarraipena ematen dion txapelketa izatea oso lagungarria da"

Ainhoa Ruiz Infante 17 urteko otxandiarrek Laboral Kutxa Emakume Master Cup binakako txapelketako finalerdia jokatuko du gaur, Legazpiko pilotalekuan

**ESKU PILOTA** • JOSEBA DERTEANO

**Pilotari gazte asko dabilta Master Cup binakako txapelketan, eta Ainhoa Ruiz Infante Kortazar da euretako bat. 17 urte besterik ez eta Promozio Mailako finalerdietara heldu da Nora Mendizabalegaz bikotea osatuta. Gaur, finalerako txartela eskuratu dezakete.**

**Final laurdenetako partidu bietan nagusitasunez gailendu zineten: 18-8 eta 18-9. Uste baino errazago?** Emaitzek ematen dutena baino borrokatuagoak izan ziren partiduak. Amaia Zarrabeitia eta Irati Ugalde ezagutzen ditut, Gernikan eurekin entrenatzen naiz eta. Elite mailan dabilen Olatz Arrizabalagaz eta bere mutil lagunagaz entrenatzen gara. Beraz, bagenekien zelan jokatzen zuten. Azpitik ateratako sakeekin min handia egin geniela esango nuke.

**Nagore Aramendiren eta Oihana Unanueren kontrakoa bide beretik joan zen?**

Psikologikoki gaxtagoa izan zen. Izan ere, Galdakaoko lehenengo jardunaldian galdu egin genuen euren kontra. Huts asko egin

nituen partidu hartan. Zer egin irabazteko? Ardura horregaz, ez arriskatzea izan zen taktika. Atzera jo eta jo aritu ginen. Partidua gogortu genuen, atzelariaren bila joanda. Ideia argiagaz joan ginen eta bikain irten zitzaigun.

**Finalerdia Madalen Etxegarai eta Uxue Osés oñatjarren kontra duzue. Zer dakizue eurei buruz?**

Gu baino gazteagoak dira eta 13 urte dituzte. Lagunak ditut. Goredolan jokatu zuten final laurdena ikustera joan nintzen. Eurek irabaztea ondo etorri zaigula uste dut. Esperientzia handiko bikoteek luzatu egiten dute partidua,

“**Partiduetan baino urduriago egoten naiz astean zehar. Frontoian trankil egoten naiz**”

eta, azkenean, bere senetik ateratzen dituzte aurkariak. Gazteen kontra desberdina da. Ikusiko dugu zer gertatzen den. Kantxan erakutsi beharko dugu finalera sailkatzea merezi dugula.

**Partidu inportanteetan urduri jartzen den horietakoa zara?**

Egia esan, partiduetan baino urduriago egoten naiz astean zehar. Frontoira noanean, trankil egoten naiz.

**Aita duzu aholkulari nagusia?**

Bai, beti izan da. Lagunekin-eta jokatu izan du, baina ez du lehiatzeko aukerarik izan eta nigaz gozatzen du. Nire botileroa izan da.

**Nora Mendizabal zure bikotekidea Andoaingoa da. Zelan ezagutu zenuen?**

Norak eta biok bakarka eman genuen izena txapelketarako. Iker Amaria txapelketako antolatzailak batu gintuen. Lehiakorra naiz eta pilotari on bat gura nuen ondoan. Maila ona eman gura nuen txapelketan. Oso pozik nabil Noragaz. 15 urte ditu, jotzaile handia da eta, partiduak jokatu ahala, gero eta hobeto hartzen dugu elkar.

**Noiztik zabilta pilotan eta noiz utzi zenuen?**

Sei-zazpi urte nituenean hasi nintzen, Otxandioko Iluntxo pilota eskolan. Gero, hamabi bat urtegez utzi nuen. Pilotak gero eta gogorragoak ziren, indar aldetik alde handia zegoen mutilekin... Neska askori gertatzen zaie. Pilota utzi eta tenisean hasi nintzen, Gasteizen. Iaz Master Cup-ak izan zuen boom-aren ostean, probatzera animatu nintzen eta jarraitu egin dut.

**Binaka ala buruz burukoan estreintu zinen?**

Buruz burukoan. Oso esperientzia ona izan zen eta pilotari asko

“**Iaz Master Cupak izan zuen boom-aren ostean, probatzera animatu eta jarraitu egin dut**”

ezagutu nituen. Okerrago moldatuko nintzela uste nuen, lau-bost urtean pilotan lehiatu barik nengoelako. Baina oso pozik geratu nintzen emandako mailagaz. Hirugarren kanporaketan, Amaia Aldai gaur egungo txapelkunaren kontra galdu nuen.

**Zuk 17 urte dituzu, Mendizabalek 15, eta aurkariak zuek biok baino gazteagoak dira. Promozio Maila gazteen txapelketa da?**

Neska gazte asko gabilta, 13 eta 15 urte arteko pila bat daude. Gazteena 11 urtekoa izan da. Nire ustez, etorkizunean eurak ibiliko dira goian, ez dutelako pilota utzi. Nik bost bat urteko geraldia izan dut, baina eurek ez.

**Master Cup txapelketaren alde positiboa da?**

Bai, dudarik barik. Master Cup txapelketak asko laguntzen du. Adibidez, 11 urteko Enara Gamindek mutilekin jokatzen du oraindik, baina Master Cup existituko ez balitz utzi egingo luke pilota, nik eta nire moduko askok utzi genuen moduan. Pilota ibilbideari jarraipena ematen dion txapelketa bat izatea oso lagungarria da.



# Emakumeen parte-hartzea sustatuko dute Kirolenek antolatutako film laburren bigarren lehiaketan

Emakume sortzaileen edo emakumeak protagonista dituzten lanek aipamen berezia izango dute aurtengo edizioan



Aitziber irigoras Durangoko alkatea eta Kiroleneko arduradunak.

## DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Kirolenek film laburren lehiaketaren bigarren aldia aurkeztu du. Naturan kirola egiten dutenen ekoizpen propioak bultzatzea du helburuetako bat.

Lehiaketak sail bi izango ditu: lan profesionalak eta amateurak. Profesionalean film laburrik onena eta teaser-ik onena sarituko dituzte. Amateurren artean, arlo gehiago sarituko dituzte. Eския, snowboard-a, eskalada eta ur kirolez aparte, beste esparru batzuei begirako saria ere sortu dute.

Emakumezkoek egindako edo emakumeak protagonista dituen film laburrik onenak aipamen berezia izango duela da beste nobedade bat. "Emakumeen presentzia indartu gura dugu", azaldu du Ki-

metz Iturralde Kiroleneko arduradunak. Horrez gain, film laburrik inklusiboena eta euskarazko lanik onena ere nabarmenduko dituzte.

## Kirolene Film Fest-eko sari banaketa ekitaldia maiatzaren 3an egingo dute, San Agustinen

Kirolene Film Fest-eko sari banaketa ekitaldia maiatzaren 3an egingo dute, San Agustinen. Maiatzaren 1a emakumeen kirola sustatzeko erabiliko dute. Maiatzaren 2an, ostera, ikasleak gonbidatuko dituzte, "eurak direlako etorkizuna markatuko dutenak".

## Jokaldia

Oihana Azkorbebeitia  
Urizar  
Mendi lasterketak



## Tsunami morea

1857ko martxoaren 8an, New Yorkeko ehun-fabrika bateko ehunka emakume langilek protesta egin zuten kalean, euren lan eskubideak aldarrikatzeko. Poliziak gogor hartu zituen, eta 120 emakume hil ziren istiluetan. Horren ondorioz, langileek emakumeen lehenengo sindikatua sortu zuten urte bi geroago.

1911ko martxoaren 25ean, 123 emakume eta 23 gizon hil ziren New Yorken, alkandora fabrika batean piztutako sute batean.

Neurri handi batean, gertaera bi horien ondorioz izendatu zuen NBek martxoaren 8a Emakume Langileen Nazioarteko Eguna, gaur egun Emakumeen Nazioarteko Eguna dena.

1857tik hona, hainbat izan dira gure eskubideen alde borrokatu diren emakumeak. Aldarrikapenaren bide gogor eta ilun horretan gorriak ikusi dituzte askok eta askok, baina horiei guztiei esker more kolorea hartu du emakumeon orainak. Orain, gure esku dago bide horri jarraitzea, etorkizunean ere more koloreak argitu gaitzan.

Martxoak 8 izan zen atzo, greba eguna, munduko emakume denok bat egiteko eguna, gure eskubideak lau haizetara aldarrikatzeko eguna, tsunami morearen eguna. Bakoitzak bere alea jarrita, mundu osoan zabaldu genuen more kolorea atzo. Asteburuan ere hainbat aukera ditugu Durangaldean aldarrikapenerako. Kirolari dagokionez, gaur Urkiolara mendi martxa Elorrioren eta Milia Morea Iurretan. Eta domekan, Lila-krosa Durangon, Txirindulari bira Zaldibarren eta Añeketan Berrizen. Tantarik tanta, tsunami more erraldoia sortuko dugu, iaz bezala. Gora Martxoak 8! Eta gora emakumeok!

## Asteko kirolaria

### "Garaipen hau ezinbestekoa izan da guretzat, aurkari zuzen bat menderatu dugu eta"

Atzerriko taldeetan jokatzeko ibili ostean, orain Sasikoan hasi da Adrian Ramirez

**FUTBOLARIA • Italian, Luxenburgon eta Frantzia areto-futboleko jokatzeko ibili ostean, Sasikoan jokatzeko hasi da Adrian Ramirez. Hasiera ezin hobea izan du taldean, joan zen asteburuan 0-7 irabazi baitzioten Goierriko taldeari.**

**Joan zen astean, nagusitasunez irabazi zenuten partidua.**

Lehenengo zatian oso ondo jokatu genuen, batez ere defentsan, eta bigarren partean hainbat gol sartu genituen. Azkeneko, hainbat goleko alde geneukan eta azken minutuak lasaigo jokatu genituen.

**Partidu horren ostean, gogotsu egongo zarete.**

Egia esan, pozarren gaude. Taldeak denbora dezente zerraman garaipenik lortu barik eta partidu honek indartu egin gaitu. Garaipen hau ezinbestekoa zen guretzat, aurkari zuzen bat menderatu dugu eta.

**Garaipen honek indarra eman dizue? Nola zaudete?**

Hurrengo partiduetara begira, garaipenak beti ematen dute adorea. Datorren astean, esaterako, lehenengo sailkatuaren aurka jokatu dugu, etxean, eta badugu esperantza puntuak lortzen jarraitzeko. Taldea gogotsu dago, ilusio eta indar handiagaz. Gainera, jokalar berri bi heldu gara taldera, eta indartu egin dela esan

daiteke. Momentu honetan, taldea konpletoagoa dela esango nuke. Beraz, hemendik eta denboraldi amaierara puntu dezente batzea espero dugu, eta maila honi eutsi ahal izatea.

**Posible da mailari eustea?**

Taldeari, sailkapenari eta egutegiari begiratu gero, mailari eustea zaila dela esango nuke, baina uste dut bagarela gai hau aurrera ateratzeko eta mailari eusteko.

**Italian, Luxenburgon eta Frantzia jokatuakoa zara. Nolatan zabilta orain Sasikoan?**

Egun Ermuan bizi naiz eta orain gutxi Sasikoa taldera etortzeko aukera sortu eta baiezkoa eman nuen. Gainera, 2015-2016 denbo-



ADRIAN  
RAMIREZ MARTIN  
Getafe, 1995

raldian bertan jokatu nuen eta gaur egun jubenilen taldea entrenatzen dut. Beraz, lagunak bertan ditudanez eta taldea oso ondo ezagutzen dudanez, Sasikoara itzultzea erabaki nuen.

**Zer ikasi zenuen atzerrian? Zer ekarri duzu handik?**

Esperientzia ona izan da eta asko ikasi dut. Egia esan, hango eta hemengo futbola oso ezberdinak dira, baina futbolari moduan hazten lagundu dit. Gainera, pertsona moduan ere asko ikasi dut.

# 2019KO INAUTERIEKOKO ARGAZKI LEHIAKETA

Parte hartzeko, igo zure argazkia [anboto.org](http://anboto.org) helbidera, otsailaren 28tik martxoaren 10era arte  
Martxoaren 11tik 17ra arte izango duzu bozkatzeko aukera

Webgunean botorik gehien duen argazkiaren egileak  
**HOTEL-TALASOTERAPIA ZELAI ZUMAIAN**  
ESPERIENTZIA ZORAGARRI BAT irabaziko du

Lehiaketaren oinarriak [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean







Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

**Higiezinak****ETXEBIZITZAK****ETXEBIZITZAK SALDU**

**Elorrio.** 70 metro koadroko etxebizitza trastelekuarekin salgai Elorrioko Argiñeta Etorbidea 20 zenbakian. 3 logeladuna. Beheko solairua. Eraberritze-obra behar du. Tel.: 631-12 31 06

**ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN**

**Abadiño.** Abadiñon Mendiola auzoan, lokal bat alokatzen da, orain TXOKO moduan dago, baina beste erabilera batzuetarako ere erabili liteke, adibidez enpresa batzarretarako, biltegi, ostatu eta abar. Umeek jolasteko leku handia dauka eta aparkaleku oso ederra.

Informazio gehiago nahi baduzu deitu 600464411 telefonora. etxetu53@gmail.com

**Lana Formakuntza****LAN ESKARIAK****PERTSONAK ZAINDU**

**Zaintzale moduan lan bila.** Zaintzale bezala lan bila nabil. Adineko pertsonak zein haurrak zaintzen esperientzia daukat. Orduka edo barneko langile moduan lan egiteko prestutasuna daukat. Berehalako disponibilitatea. Interesa duenak ondorengo telefonora deitu nazala, gaztelaniaz mesedez: 631 925 525. Eskerrik asko.

**Esperientziadun umezalna.**

Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat

umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

**LAN ESKAITZAK****PLANTXA ORDUKA EGITEN DUT.**

Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

**PERTSONAK ZAINDU**

**Adinekoen zaintza lanak.** Adineko pertsonen zaintzan lan bila nabil. Eskarmentuarekin. 21 urte ditut. (gaztelania) jorgebeloorin@gmail.com

**Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil.** Kaixo,

**HIGIEZINAK****TEKNOLOGIA****LANA/NEGOZIOAK****DENETARIK****IBILGAILUAK****HARREMANAK****AISIA/KIROLA****FAMILIA/ETXEA****NORBANAKOEN IRAGARKIAK****Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzako.

Erregistratu [www.anboto.iragakilaburrak.com](http://www.anboto.iragakilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

**Barneko langile gisa lan bila.**

Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehalako prestutasunarekin. Tel.: 644558390

**Barneko langileen lan bila.**

Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak zaintzen edo haurren zaintzan lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehalako prestutasunarekin. Tel.: 632705225

# Gremioen gida

anboto

**Elektrizitatea****MARKIEGI****ARGIZTATZEN JARRAITZEN DUGU!**

Tabira, 3 - 48200 Durango  
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932  
E-mail: [markiegi@markiegi.com](mailto:markiegi@markiegi.com)  
[www.markiegi.com](http://www.markiegi.com)

**Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



[www.leikearoztegia.com](http://www.leikearoztegia.com)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

Instalatzaila baimendua

659 673 790  
[unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)

**Iturgintza****Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)

**Iturgintza**

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
[ubide@euskalnet.net](mailto:ubide@euskalnet.net)  
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**ALDEKOA-OTALORA**  
ITURGINTZA - GASA  
BEROGINTZA - AIREA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

[info@aldekoaotalora.com](mailto:info@aldekoaotalora.com)  
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA  
946 202 768

Ind. Arzubia - Pob. 13-14 **ABADIÑO**  
944 071 791

**Zurgintza**

Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

**Dekorazioa****JAIObarnizatuak**

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
[info@jaiobarnizatuak.com](mailto:info@jaiobarnizatuak.com)  
[www.jaiobarnizatuak.com](http://www.jaiobarnizatuak.com)



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**





**Botikak**

**BARIKUA, 8 - 09:00-09:00**

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 9 - 09:00-09:00**

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**09:00-13:30**

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**SAGASTIZABAL**  
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**BAZAN DIAZ** Urbarri 5 - **DURANGO**

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**EGUREN, ISABEL**  
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

**JAIO-ABENDIBAR**  
Errekakale 6. - **ELORRIO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**09:00-14:00**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**DOMEKA, 10 - 09:00-09:00**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA, 11 - 09:00-09:00**

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 12 - 09:00-09:00**

**ETXEARRIA**  
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 13 - 09:00-09:00**

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 14 - 09:00-09:00**

**MUGICA** Andra Maria 9 - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**Zorion Agurrak**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



**Antiak** 9 urte egingo ditu martxoaren 15ean. Zorionak aittitte, amama eta osaba Alainen partez!



Martxoaren 10ean 4 urte egingo dauz gure etxeko sorginek! Zorionak etxeko guztixen partez! Mosu handi bat!

**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozaturango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Jare (752. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Joan zen astean, papeleran lan egindako andrak bazkaltzeko batu ziren. Aupa zuek!



Oromiñoko eskolan ibiliekuek bazkarixe egin ebien martxoaren 3an San Markoko txokuen.

**Eguraldia**

ZAPATUA 🌧️ 16° / 9° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 14° / 7° ☀️

EGUAZTENA 🌧️ 8° / 6° ☁️

DOMEKA 🌧️ 15° / 8° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 15° / 6° ☁️

EGUENA 🌧️ 11° / 6° ☁️

**urtxintxa jostailu denda**  
Jolasten ikastea errazagoa delako  
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

**BODEGUILLA**  
**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com  
#nobedadeak

**TXILLARDEGI**  
BATASUNAREN PENTSALARIA  
Miren Rubio Iturria  
2019

**TXOMINEN GORPUTZA**  
Liesbet Slegers  
2019

**MUSIKA**  
LIV TIL DODEN  
Nogan  
2018



# "Parte hartzeko errelebo lasterketa baten modukoa da Lilakrosa, sinbolismoz betea"

Domekan, 14. urtez egingo dute Lilakrosa Durangon. Isabel, Mila eta Miren han izango dira, urte hauetan guztietan bezala. Ezkurditik irtengo da lasterketa, 12:00etan

**Isabel Iraurgi Bilbao** (1956, Durango)  
**Mila Yañez Barrio** (1974, Iurreta)  
**Miren Sarrionandia Derteano** (1951, Durango)  
 • Lilakrosean parte hartuko dute

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

2005ean egin zen lehen Lilakrosean, 18 elkarte egin zuten bat ekimengaz. Egun, ez dago lekurik parte hartu gura duten elkarte guztientzat. Lehen zatia Andereak elkarteak egiten du beti, eta han egongo dira Miren Sa-



rionandia eta Isabel Iraurgi kideak. Mas Curvas elkarteko Mila Yañez ere ez du hutsik egingo. Aurten, Gualtemalan indarkeria jasandako emakumei lagunduko die Lilakrosak.

**Ekimenaren sustatzaileetarik bat Andereak izan zen 2005ean. Harrezkero, egon da aldaketarik?**

**Miren Sarrionandia:** Parte-hartzean igarri da aldaketa, batez ere. Azpimarratzekoa da zenbat elkarte eta herritar batu diren ekimenera.

**Isabel Iraurgi:** Neurri batean, Donostiako Lilatoiatik ekarri genuen ideia.

**Miren:** Baina gurea lasterketa herrikoia izan behar zela pentsatu genuen, herritarrak sentsibilizatu eta kontzientziazteko. Orduan, talde feminista bi geunden Berdintasun Kontseiluan: Bilgune Feminista eta Andereak. Lehen manifestu hartan, emakumeen langabezia maila altua, erabakiguneetan genuen presentzia baxua, enpleguaren sexu banaketa, tratu txarrak eta sexu erasoak nabarmendu ziren; batez beste, andren soldata gizonena baino %26 baxuagoa zen.

**Oraindik ardura sortzen duten gaiak dira.**

**Isabel:** Bai, ia berdin gaude. Dena dela, gizartea osoan ez bada ere, badago begirada apur bat kritikoa. Horretan aldaketa izan da; alarmak pizten dira egoera batzuen aurrean.

**Mila Yañez:** Eman dira pausoren bazuk, emakumeen presentzia igo egin da, erabakiguneetan, kirolean... baina oso astiro doa dena. Tratu txarrak eta sexu erasoak, berriz, gehitu egin direla ematen du.

**Miren:** Sistema patriarkalaren eta kapitalismoaren erresistentziak dira. Moduak sortu dituzte, gazte eta umeek sexu eredu zehatz batzuk

kontsumitu ditzaten. Asko borrokatu beharra dago oraindik.

**Zergatik korrituko duzue Lilakrosa?**

**Miren:** Berdintasuna deitzen diogun horren alde zerbait egiteko aukera delako; asko egon daitezkeen arren eztabaidatzeko berdintasunaz. Garrantzitsua delako txikienei islatuko diegun irudi hori: testigua beti emakume baten eskuetan. Emakumeen artean kirola indartzeko eta familian egiteko lasterketa delako; askotan hizpide dugun hezkuntzak familian du jatorria eta.

**Isabel:** Mirenek esan duen lez, go-goan geratzen diren flash-ak islatzen zaizkie umeei. Guztientzat bali duen kamiseta arrosa, adibidez.

**Mila:** Kirola sustatzeko eta familian egiteko lasterketa bat delako, gizon-emakumeen berdintasunaren alde.

**Nola bizi duzue zuek Lilakrosa?**

**Miren:** Lehen, lasterketa osoa egiten nuen. Orain, irteeran parte hartzen dut, giroa bizi dut gehiago.

**Isabel:** Azkenekoetan ilobekin irten naiz. M8ko egitaraua borobiltzeko era da.

**Mila:** Hainbat urtez eraman dut lekukoa. Orain, alabagaz joaten naiz. Egiteko eta erabakitzeke libre garela erakutsi gura diot.

**Lasterketa amaitzeko gai ez direla uste dutenei, zer esango zeniekete?**

**Mila:** Ia oinez goaz eta! Animatu daitezela. Lasterketa familiarra da.

**Miren:** Parte hartzeko errelebo lasterketa baten modukoa da, sinbolismoz betea.

**Isabel:** Parte hartzea da garrantzitsua; denok gara irabazle.

## Berba bitan

**Aldarri bat?**

**Isabel:** Ezkutuko biolentzia, mikromatxismoa, amaitzea.

**Mila:** Libre izateko aukera, beldurrik barik

**Miren:** Andre pentsiodunen prekaritateari erantzutea

**Emakumezko erreferente bat?**

**Isabel:** Mari Jose Urruzola

**Mila:** Maria de Villota

**Miren:** Rosa Luxemburgo

**Abesti bat?**

**Isabel:** 'Neska Soldadua'

**Mila:** Queen-en edozein

**Miren:** 'Konplize ditut-eta'

Lau hortza

Sergio Murillo Corzo  
Ekonomialaria



## Zaintza beharra

Gizarteak zaintza behar dau; izateko eta irauteko. Pertsonen multzoa gizarte bihurtzen dauan ezaugarria alkarren arteko zaintza da, pertsonen arteko erlazioen multzoa. Eta gizarte batek irauteko, kide barriak hazi eta hezi behar ditu, alkar zaindu, joandakoak ordezkatzuz, bizitzaren katearen amaigabeko katebegiak balarira lez.

Gizartearen ikuspegi honen alkarren beharra daukaguna aitortzea dakar; norberak besteekiko betebeharrak batzuk daukazana onartzea. Onarpen hori askea izan behar da, bakoitzak egindako aukera. Eta (bete)behar horreek, behar(rizan) batzuk asetzeko bideratzen direnean, zaintza agertzen da. Gizarte orekatu baten, era armoniosu baten, betebeharrak eta behar(rizan) horreek zaintzek bideratzen eta asebetetzen dabez. Elkarren arteko zaintza hartu-emonen mapa eraikiz doa.

Zaintzen antolaketa hori, berezkoa dan azaltzen tematu baino, askatasunez aukeratu eta ziurtatu behar dugu. Horretarako, gizabanako bakoitzari gizarteagaz daukan betebeharrak zaintza ez diran beste (lan) erlazioen bidez betetzeko aukera eskaini behar deusaguz. Horrela, gizarte honetan, zaintzak ez dau menpekotasun kutsurik izango, askatasuna daukalako jatorri lez.

Gaurkoan, ziurrenik, zaintza beharra inoiz baino argiago dakusagu. Gizabanako guztion (bete)behar(rizan) bat da zaintza. Eraiki gura dugun euskal-gizartea askatasun solidarioa muinean daukan gizartea da. Loteslea da, bai, askea bezainbat.

**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
 GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



**ALTREX markako aluminiozko aldamiak**

Arina da, oso eramangarria eta ondo egokitzen da espazio txikietara

